


# Sustainable growth

In advanced manufacturing

2025



Makina-erremintan eta fabrikazio aurreratuan erreferentea gara, eta **jasangarritasunean** ere erreferente izateko egiten dugu aurrera, **planetarentzat, gizartearentzat eta pertsonentzat inpaktu positiboa** eragin nahi dugulako gure jardueran gabiltzan bitartean.

Argi daukagu, gure izateko modua bakarra da; horrek bidea markatu digu, eta, orain, zurekin partekatu nahi dugu. **Ezagutu jasangarritasunean eman ditugun aurrerapausoak. Ezagutu gure memoria.**

# Sustainable growth

In advanced manufacturing 2025

## Aurkibidea

01

**Presidentearen eta zuzendari nagusiaren gutuna**

04. or



02

**Ikuspegia, konpromisoak eta ekintza nagusiak**

05. or



03

**Danobatgroupi buruz**

11. or



04

**Deskarbonizatzea**

Ekintza klimatikoa eta ingurumenaren zaintza: gaurtik etorkizuna babestea.

23. or



05

**Zaintzea eta eraldatzea**

Pertsonenganako konpromisoa: balioa eta ongizatea sortzen erakunde barruan eta kanpoan.

42. or



06

**Denboran sendotzea**

Gobernantza arduratsua, etikoa eta kooperatiboa.

68. or



07

**Materialtasun bikoitzaren azterketa eta jasangarritasunerako gai nagusiak**

82. or



08

**Eranskinak**

96. or



# Aliantzak, negozio berriak eta interkooperazioa

Ziurgabetasun geopolitikoak eta aurrekaririk gabeko lehia teknologikoak — bereziki Txinatik — markatutako testuinguru globalean, Danobatgruppen fabrikazio aurreratuan erreferente gisa dugun posizioa berretsi dugu 2025ean, fakturazioan berriro ere mugarri historikoa lortuta, 366 milioi euro fakturatu baititugu. Balantz positibo hori, funtsean, Danobat eta Soraluze taldeko enpresa fabrikatzaileek nazioartean duten jarduera handiari zor zaio, balio erantsi handiko proiektuen salmenten %90 baino gehiago kanpoko merkatuetan eta sektore aeroespazialean edo energetikoan egiten baitituzte.

Jarduera hori ikusita, are eta konbentzituago gaude norabide egokian aurrera egiten ari garela, zuhurtziaz eta inguruari etengabe arreta emanez, gure balio kooperatiboekin — pertsonak gure jardueraren erdigunean kokatzen dituztenak — koherente izanda, eta, aldi berean, 2025-2028 Plan Estrategikoaren ildoak hedatzen jarraitzen dugu, berrikuntza teknologikoan, zerbituzazioan, dibertsifikazioan eta nazioarteratzean fokua jarrita, eta jasangarritasuna, Adimen Artifiziala eta talentua integratzen.

Jasangarritasunari dagokionez, 2025ean jauzi kualitatiboa eman dugu gure ASG estrategian (Ingurumena, Gizartea eta Gobernantza). Taldeko enpresa nagusiek materialtasun bikoitzaren azterketa egin dute, jasangarritasuneko funtsezko gaiak identifikatuz eta lehenetsiz, eta beren jarduera planak definitu dituzte, horrela gure ekarpena egituratu, lehenetsi eta modu eraginkorragoan hedatzeko eta ekarpen horren inpaktua maximizatzeko aukera ematen duen esparru komuna eratzeko.

Ingurumenaren arloan, deskarbonizazioan, kudeaketa energetikoan eta ekonomia zirkularrean aurrera egiten jarraitu dugu, esaterako, 1, 2 eta 3 irismenetako berotegi efektuko gasen emisioen neurketaz gain, Danobatek eta Soralucek Net Zero emisioetarako bide orriak zehaztu dituzte 1 eta 2 irismenetan, 2030eko horizontearekin. Aldi berean, energia modu jasangarriagoan kontsumitzearen aldeko konpromisoa indartu da, eta 2025ean lantegi guztietan kontsumitutako energia elektrikoaren %100 jatorri berriztagarrikoa izatea lortu da. Soralucek beste makina modelo bat ziurtatu du Ekodiseinuko ISO arauaren arabera, eta gaur egun 27 modelo ditu ziurtagiri horrekin. Era berean, Mugikortasun Plana sustatzen jarraitu da langileen artean: 2025ean 46.472,9 kg CO<sub>2</sub> isurtzea saihestu da eta 7.500 euro baino gehiago banatu diren pizgarrietan erabiltzaile aktiboenen artean.

Alderdi sozialean, kalitatezko enplegua, lan ingurune seguru eta osasungarriak eta berdintasunezko kultura inklusiboa sustatzen jarraitu dugu, gure enpresa kooperatibo ereduarekin lerrokatuta eta taldea osatzen duten 1.492 pertsonen garapena eta ongizatea ardatz hartuta. 2025ean talentua erakartzeko, garatzeko eta fidelizatzeko ekintzak eta planak bultzatzen jarraitu dugu. Berdintasun, aniztasun eta inklusioaren arloan, Berdintasun Plana betetzeko bidean aurrera egin dugu, eta plana hedatzen ere jarraitu dugu ekintza zehatzen bidez. Ekintza horien artean, nabarmentzekoa da hautaketa eta sustapen prozesu inklusiboetarako sortu den dekalogoia. Era berean, STEM ekimenak babesten jarraitu dugu, emakumeen artean bokazio zientifiko-teknologikoak sustatzeko ekimenei arreta berezia eginez; eta, ingurunearekin dugun konpromisoarekin bat etorriz, ekimen sozialekin lankidetzan jarraitu dugu xede horretara bideratutako funtsen bidez, 200 erakunde baino gehiagori mesede eginda.

Gobernantzari dagokionez, Arauak Betetzeko Programari eta horren ondoriozko ekintzei jarraipena eman diegu. Era berean, hornidura katea taldearen eredu jasangarri eta etikoarekin modu koherentean orientatzeko, 2025ean hornitzaile kritikoei inkesta bat egin diegu jasangarritasunean duten heldutasun maila

ebalutzeko, eta Erosketa Politika berri bat onartu dugu, Erosketa Baldintza Orokor berriekin eta Hornitzaileentzako Jokabide Kode batekin batera. Gainera, informazioaren segurtasunaren eta zibersegurtasunaren esparruan pauso garrantzitsua eman dugu ISO 27001 ziurtagiria lortuta.

Ekintza horiek guztiek, memoria honetan jasotako beste batzuekin batera, fabrikazio aurreratuen egungo eta etorkizuneko erronkei erantzukizunez aurre egiteko konpromisoa islatzen dute, garapen jasangarrian eta gure jardueraren bidez inpaktu positiboa sortzen laguntzeko.



**Julian Aizpurua**  
Danobatgroupen presidentea




**Nerea Aranguren**  
Danobatgroupen zuzendari nagusia

# Danobatgroupen jasangarritasuna kudeatzeko ikuspegia

Danobatgroupen jasangarritasuna modu koordinatuan, egituratuan eta taldeko enpresa nagusien enpresa estrategian integratuta kudeatzen da, ahaleginak lerrokatzea, baliabideak optimizatzea eta talde mailan zein kooperatiba bakoitzean hartutako konpromisoak betetzeko modu koherentean aurrera egitea ahalbidetzen duen eredu komun baten bidez.

Esparru horretan, 2025ean Danobatgroupeko enpresa nagusiek, eta taldearekin modu koordinatu batean, beren Jasangarritasun Planak garatu dituzte. Plan horiek aukera ematen dute jasangarritasun estrategia maila operatiboan hedatzeko, kooperatiba bakoitzaren ekintza eta helburu espezifikoak eta taldetik elkarrekin kudeatutako konpromiso eta jarduera ildoak konbinatuz.



## Plan estrategikoarekin lerrokatzea

Danobatgroupeko kooperatibei beraien negozioen estrategia sozioenpresarialetan jasangarritasuna integratzeko trantsizioan laguntzea da 2025-2028 taldeko Plan Estrategikoan jasotako ildo estrategikoetako bat.

Esparru horretan, taldeko enpresa nagusien Jasangarritasun Planak 2025-2028 Plan Estrategikoen marko barruan kokatzen dira eta erabat lerrokatuta daude Danobatgroupen Plan Estrategikoarekin eta Mondragonen Politika Sozioenpresarialarekin; beraz, koherentzia, ikuspegi komuna eta jasangarritasunari dagokionez lerrokatze estrategikoa bermatzen dute.



## Jasangarritasunaren gobernantza

Gobernantza funtsezko elementua da kudeaketa eraginkorra, koherentea eta lerrokatua ziurtatzeko. Testuinguru horretan, Danobatgroupek jasangarritasunaren gobernantza taldeko enpresa nagusietako batzorde egitura baten bidez, Danobatgroup mailako batzorde baten bidez eta Mondragoneko Jasangarritasun Batzordean parte hartuz egituratzen du gaur egun. Horrek aukera ematen du jasangarritasun gaien kudeaketan koordinazioa eta koherentzia ziurtatzeko.



## Lehentasunezko gaiak: Materialtasun bikoitza eta garrantzi estrategikoko gaiak

Danobatgruppen ustez, jasangarritasuneko gaiak ingurumen, gizarte eta gobernu oneko gaiak dira, pertsonengan eta ingurunean inpaktu garrantzitsuak sortzen dituztenak, jarduera ekonomiko finantzarioan eragiten dutenak edo taldeko enpresen posizionamendu estrategikorako eta epe luzerako lehiakortasunerako funtsezkoak direnak.

Ikuspegi horrekin, eta taldetik koordinatuta, taldeko bi enpresa nagusiek — Danobatek eta Soralucek — materialtasun bikoitzaren azterketa egin dute 2025eko ekitaldian, beren jarduerari lotutako inpaktu, arrisku eta aukera nagusiak identifikatzeko eta lehenesteko. Prozesua EFRAGen gomendioei jarraituz garatu da, eta interes taldeei kontsulta egin zaie.

Modu osagarrian, azterketak garrantzi estrategikoaren ebaluazio bat egin du, zeinarekin materialtasun bikoitzaren atalaseak gainditu gabe taldearen ikuspegirako, jasangarritasunerako bide orrirako eta etorkizuneko erregulazio, merkatu edo gizartearen eskakizunei aurrea hartzeko erabakigarriak diren gaiak identifikatu ahal izango diren.

Prozesu horren ondorioz, taldeak eta bere enpresa nagusiek jasangarritasuneko hamahiru gai kudeatzen dituzte guztira, materialtasun bikoitzeko gaiak eta estrategikoki garrantzitsuak diren gaiak bereiziz, eta horiek dira ESG arloko lehentasunak, helburuak eta ekintza planak definitzen dituzten oinarria.

Informazio gehiagorako ikus memoria honen 7en atala; materialtasun bikoitzeko azterketa eta jasangarritasunerako gai nagusiak.

03	05	13
Dimentsio	Lan lerro	Lehentasunezko gaiak
Ingurumena	Klima Aldaketa	Deskarbonizazioa Energia Ekonomia zirkularra Kutsadura
Soziala	Langileak	Osasuna eta segurtasuna Berdintasuna, aniztasuna eta inklusioa Erakartzea, garatzea eta fidelizatzea
	Kontsumitzaileak eta Erabiltzaileak	Osasuna eta segurtasuna
	Eraldaketa Soziala	Kooperatibaren eraldaketa soziala
Gobernantza	Kultura Korporatiboa	Arauak betetzea Gobernantza eta kultura korporatiboa Hornidura katearen kudeaketa jasangarria Zibersegurtasuna eta informazioaren segurtasuna



## Politikak

Taldeko enpresek jasangarritasun gaiak babesten dituzten eta hartutako konpromisoei erantzuten dieten politika batzuk dituzte. Politika horiek erabaki estrategikoak eta operatiboak bideratzen dituzte, arlo ekonomikoan, sozialean eta ingurumenekoan jarduera arduratsua sustatzeko.



### • Jasangarritasun Politika

• Ingurumen Politika	• Laneko osasun eta segurtasun politika	• Kode Etikoa	• Arrisku penalak prebenitzeko eskuliburua	• Gatazka eta jazarpenaren aurrean jarduteko politika
• Energia-politika	• Berdintasun-politika	• Ustelkeriaren aurkako politika	• Interes-gatazkak prebenitzeko politika	• Pribatutasun- eta konfidentzialtasun-politika
	• Gizarte-ekintzako politika	• Hornitzaileentzako jokabide-kodea	• Erosketa-politika	• Informazioaren segurtasunari buruzko politika
	• Hizkuntza Politika	• Finantza-politika	• Kalitate-politika	• Export Control + Due Diligence Kudeaketa Politika

\* Taldeko enpresa guztiek ez dituzte aipatutako politika guztiak. Informazio gehiagorako kontaktatu kooperatiba bakoitzarekin.



## Helburuak eta ekintzak

Jasangarritasunaren kudeaketa jarduera eremuen arabera zehaztutako helburu, mugarri eta ekintzen bidez gauzatzen da, zeinak taldeko enpresa nagusietan dituzten ekintza plan espezifikoetara lotuta dauden. Plan horiek, halaber, Danobatgroupek traxionatu eta koordinatzen dituen helburu eta ekintza transbertsalak dituzte, eta horrek aukera ematen du modu koherentean aurrera egiteko partekatutako ingurumen, gizarte eta gobernu oneko konpromisoetan.





## Ziurtagiriak eta ebaluazioak

Taldeko enpresei aldizka auditoriak egiten zaizkie, IGG eremu espezifikoetan dituzten kudeaketa sistemak ziurtatzeko.

Bestalde, jasangarritasunari buruzko ebaluazio integralak ere egiten dira, bezeroen eskakizunak betetzeko.

### Ziurtagiriak:

<b>AENOR</b> HUELLA DE CARBONO CO <sub>2</sub> CALCULADO ISO 14064	<b>AENOR</b> GESTIÓN ENERGÉTICA ISO 50001	<b>AENOR</b> ECODISEÑO ISO 14006
<b>AENOR</b> GESTIÓN AMBIENTAL ISO 14001	<b>AENOR</b> CALIDAD AEROSPACIAL UNE-EN 9100	<b>AENOR</b> SEGURIDAD Y SALUD EN EL TRABAJO ISO 45001
<b>AENOR</b> GESTIÓN DE LA CALIDAD ISO 9001	<b>AENOR</b> GESTIÓN I+D+I UNE 166002	<b>AENOR</b> SEGURIDAD INFORMACIÓN ISO/IEC 27001



### Ebaluazioak:

ECOVADIS



\* Taldeko enpresa guztiek ez dituzte aipatutako ziurtagiri eta ebaluazio guztiak. Informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan kooperatiba bakoitzarekin zuzenean.



## Txostenak egitea eta komunikazioa

Urteko jasangarritasun memorian, Danobatgroupen gai materialei dagokienez egindako kudeaketa eta bilakaera azaltzen dira. Memoria hori taldearen webgunean argitaratzen da, eta barneko zein kanpoko zabalkundeak ematen zaio.

Era berean, Danobat eta Soraluze enpresek urtero argitaratzen dute beren Informazio Ez-finantzarioaren Egoera (IEFE), 11/2018 Legean ezarritakoa betez.



## 2025ean jasangarritasunean nabarmendutako arloak, konpromisoak eta ekintzak



### Ingurumena

## Deskarbonizatu

Ekintza klimatikoa eta ingurumenaren zaintza: gaurtik etorkizuna babestea.

Ekintza klimatikoarekin eta ingurumena zaintzarekin dugun konpromisoak bultzatzen gaitu gaur egun etorkizuna babestera, etorkizuneko belaunaldiei planeta hobea uzteko. Horregatik, karbonorik gabeko industria baterantz pausoak ematen ditugu, efizientzia energetikoa sustatzen dugu, ekonomia zirkularreko praktikak aplikatzen ditugu gure produktuetan eta zorrotz kudeatzen dugu kutsaduraren prebentzioa, gure erabakiek eta ekintzek partekatzen dugun ingurunean eragin positiboa eta jasangarria izango dutela ziurtatzeko.



### Soziala

## Zaintzea eta eraldatzea

Pertsonenganako konpromisoa: balioa eta ongizatea sortzen erakunde barruan eta kanpoan.

Proiektu kolektibo gisa, pertsonak jartzen ditugu gure jardueraren erdigunean.

Gure barne talentua berdintasunetik eta aniztasunetik zaintzen eta garatzen dugu, gure pertsonen zein gure produktuetan konfiantza dutenen osasuna eta segurtasuna babesten ditugu, eta gizartearen aurrerapenean eta komunitatearen ongizatean aktiboki laguntzen dugu, kalitatezko enplegua sortu eta gure ingurunearen ongizate ekonomiko eta sozialean lagundu nahi dugulako.



### Gobernantza

## Denboran sendotzea

Gobernantza arduratsua, etikoa eta kooperatiboa.

Gure izateko arrazoi kooperatiboak, Mondragonen esparruan, gure gobernantza gidatzen du, zeina parte hartzean, demokrazian, elkartasunean, gardentasunean eta erantzukidetasunean oinarrituta baitago; horretarako, gure kultura kooperatiboa integritate eta arau betetze estandar gorenekin konbinatzen ditu.

Gainera, gure hornidura katea IGG irizpideekin lerrokatutako garapen jasangarrira bideratzen dugu, eta informazioaren segurtasuna zaintzen dugu. Dena helburu berarekin: konfiantza sortzea, gure ereduarekin koherenteak izatea eta hurrengo belaunaldiei ondare hobe bat uztea.

## Helburuak

## Ekintza nabarmenak 2025



## Ingurumena

## Deskarbonizatzea

- Erakundearen deskarbonizazioa bultzatzea, plan egituratu baten bidez 1, 2 eta 3 irismenetan berotegi efektuko gasen emisioak murriztuz, neutraltasun klimatikorantz aurrera egiteko.
- Energia hornidura %100 berriztagarria izatea bermatzea; jatorri berriztagarriko bermeak dituen elektrizitatea eta autokontsumo bidezko sorkuntza propioa erabilita.
- Ekonomia zirkularra integratzea produktuen bizi zikloan zehar
- Kutsadura prebenitzea eta aplikatu beharreko ingurumen araudia zorrotz betetzen dela ziurtatzea, ISO 14001 ziurtatutako ingurumen sisteman oinarrituz

- › Karbono aztarnaren neurketa hiru irismenetan (1, 2 eta 3).
- › 1 eta 2 irismenarako deskarbonizazio plana gauzatzea taldeko kooperatiba nagusienetan.
- › Autokontsumo energetikoa eta jatorri berriztagarriko hornidura elektrikoa handitzea.
- › Mugikortasun Planaren esparruan bultzatutako neurriak indartzea eta zabaltzea.
- › Ekodiseinua produktu eredu gehiagotara zabaltzea.
- › Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren (ISO 14001 ziurtagiria) irismena filialetara zabaltzea.



## Soziala

## Zaintzea eta eraldatzea

- Erakundeko langileen osasuna eta segurtasuna modu integralean babestea, ISO45001 ziurtagiria duen sistema baten bidez.
- Tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzea, askotariko belaunaldiak, kulturak eta funtzioak egotea baloratzen duen kultura inklusiboa sustatuz.
- Proiektu kooperatiborako beharrezkoa den talentua erakartzen, garatzen eta fidelizatzen dela ziurtatzea, kalitatezko enplegua, etengabeko ikaskuntza ibilbideak eta kide izatearen konpromisoa eta harrotasuna indartuko dituen kontziliazio esparru bat eskainiz.
- Diseinutik bermatzea produktuaren bizi ziklo osoan produktuek erabiltzaileen osasuna eta segurtasuna babesteko ikuspegia dutela.
- Gizartea eraldatzen aktiboki laguntzea, bizi kalitatea eta gizarte ongizatea hobetzera bideratutako erakundeei eta proiektuei lagunduz.

- › Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren kudeaketarekin jarraitzea, ISO 45001 arauarekin bat etorritz.
- › Berdintasunerako eta aniztasunerako Kudeaketa Planaren betetzea.
- › STEM ekimenak sustatzen jarraitu da.
- › Talentua erakartzeko, garatzeko eta kudeatzeko ekintzekin aurrera egin da.
- › Erabiltzaileen osasunaren eta segurtasunaren lege eskakizunak % 100ean bete dira.
- › Ingurunean eragin soziala duten proiektuei laguntzea.



## Gobernantza

## Denboran sendotzea

- Osotasun eta betetze esparru bat ziurtatzea, ustelkeria eta eroskeria prebenitzeko, informatzaileak babesteko eta erakundeari etika eta enpresa jokabideko mekanismo eraginkorrak emateko.
- Kultura kooperatiboa indartzea, gure kooperatiben ezaugarri bereizgarri gisa, elkarrikeria sozial gardena eta eredu kooperatiboaren balioekin eta esparruekin koherentea den barne eta kanpo aitortza bermatuz.
- Hornidura katearen kudeaketa gidatzea, taldeko enpresen eredu jasangarri eta etikoarekin bat etor dadin.
- Informazioaren segurtasuna bermatzea, ISO27001 ziurtagiria duen sistema baten bidez, eta produktu mailan aplikatzen diren zibersegurtasun araudiak betetzea.

- › Araudia Betetzeko Programaren jarraipena.
- › Kultura korporatiboari buruzko inkesta eta kooperatibismoari buruzko prestakuntza ekintzak egitea.
- › Hornitzaileei jasangarritasunaren autoebaluazioa egitea.
- › Erosketa Politika, erosketa baldintza orokorrak eta Hornitzaileentzako Jokabide kode berriak onartzea eta ezartzea.
- › ISO 27001 ziurtagiria lortzea.

\* Lotutako aurrerapenen eta adierazleen xehetasunak memoria honetako eremu bakoitzeko atal espezifikotik kontsulta daitezke.

# Sustainable growth

In advanced manufacturing

## Danobatgrupi buruz <sup>03</sup>

Sarrera	12
Taldeko enpresak	13
Mondragon korporazioaren parte	14
Talde global bat	15
Bisioa eta balioak	16
Izaera berritzailea	17
Aliantzak, negozio berriak eta interkooperazioa	20

## 04 Deskarbonizatu 05 Zaintzea eta eraldatzea

## Sarrera

Danobatgroup industria talde kooperatibo bat da, eta makina-erreminten fabrikazioan, balio erantsi handiko osagaien fabrikaziorako garapenetan, giltza eskura erako ekoizpen sistemetan eta zerbitzu teknologikoki aurreratuetan espezializatuta dago, eskakizun zorrotzeko sektoreentzat, hala nola aeronautika, trengintza, automobilgintza edo energiaren sorreraren sektoreentzat, besteak beste.

Danobatgroup forma parte de la Corporación Mondragon y cuenta con más de 70 años de experiencia en el desarrollo de sistemas de alta precisión, impulsando la investigación y la aplicación de tecnologías avanzadas para la fabricación. Es el principal fabricante nacional y uno de los mayores productores europeos de máquinas-herramienta.

Taldea Mondragon Korporazioko kidea da eta 70 urteko ibilbidea egin du doitasun handiko sistemak garatzen eta fabrikaziorako diren teknologiak ikertzen eta aplikatzen. Makina-erreminten fabrikatzailerik handiena da Espainian, eta ekoizle nagusietako bat Europan. Enpresa taldeak kualifikazio handiko 1.492 pertsonaz osatutako plantilla du, eta 366 milioi euroko fakturazioa; fakturazio horretatik, %90 baino gehiago nazioarteko merkatuetatik dator.

Taldeko enpresa nagusiak hauek dira: Danobat, artezteko makinaren, doitasun handiko tornuen eta doitasunezko roboten Europako fabrikatzaile nagusietako bat, Hembrug eta Overbeck filialen eskaintza barne hartzen duena; Soraluze, fresaketa, mandrinaketa eta funtzio anitzeko teknologian mundu mailako fabrikatzaile aitzindaria; eta Goimek, doitasunezko mekanizazioetan eta konplexutasun handiko mekanizazio handietan espezializatutako enpresa.

Etorkizuneko erronkei aurrea hartzeko, bere balio proposamena dibertsifikatzeko eta aukera berriak esploratzeko, Danobatgrouppek aliantzen politika bat ere badu aktibo, enpresa berriak eskuratuta, startup-en kapital sozialesan parte hartuta edo hurbileko arloetan lankidetzan estrategikoak bultzatuta, besteak beste Savvy eta Novak enpresekin egin duen bezala.

Nazioarteko bokazioa izatea eta kanpoko merkatuetara irekita egotea izan da beti Danobatgroupen nortasun ezaugarrietako bat, eta enpresak fabrikazio lantegi gehienak Euskadin dituen arren, Alemanian, Herbehereetan, Errumanian eta AEBetan ere baditu fabrikazio plantak, eta Bikaintasuneko Zentroak herrialde estrategikoetan, hala nola Alemanian, Italian, Herbehereetan, Estatu Batuetan eta Txinan.

Danobatgroupen ezaugarria da berrikuntza eta teknologia aitzindarien garapenaren aldeko apustu irmoa egiten duela; izan ere, konpromiso horrek bere izaera markatu du, eta bere ezaugarri funtsezkoenetako bat bihurtu da. Hala, bere diru sarreren %9 baino gehiago berrikuntzan inbertitzen du, patente propioen 58 familia ditu ustiapenean, eta bere berrikuntza motor gisa funtzionatzen duen partner teknologiko bat du: ldeko ikerketa zentroa.

Taldea nabarmentzen da, halaber, jasangarritasunaren alde eta pertsonen eta ingurunearen ongizatearen alde egiten duen apustu irmoagatik. Konpromiso hori gauzatzeko, ingurumen, gizarte eta gobernu oneko (IGG) irizpide zorrotzak txertatu ditu bere estrategian. Bide orri horretan, bere eguneroko kudeaketa Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH) batzen da, horrela balioa ematen jarraitzeko, sortu zenetik egiten ari den bezala.

2025



### 366 M€

Fakturazioa



### >%90

Esportazioa



### 1.492

Pertsona



### >%9

I+G+Bko inbertsioa



### Herrialde nagusiak

- AEB
- Txina
- Alemania
- Espainia
- Italia



### Sektore nagusiak

- Aeronautikoa eta aeroespaziala
- Automobilgintza eta mugikortasun elektrikoa
- Ekipo ondasunak
- Trengintza
- Energia

Informazio gehiagorako, ikus: 1. Eranskina, GRI 2-1 harremanetarako datuak eta txostenaren irismena

## Taldeko enpresak



### SORALUCE

Soralucek 60 urte baino gehiagoko esperientzia du eta berrikuntzarekiko konpromiso sendoa erakutsi du bere ibilbide osoan. Ingeniaritza-soluzio aurreratuen garapenean egindako ekarpen etengabeari esker, makina-erremintaren sektoreko erreferente bihurtu da.

Merkatuan 3.000 makina baino gehiago instalatuta dituela, Soralucek mekanizazio-soluzio sorta zabala eskaintzen du, besteak beste fresatzeko makinak, mandrinatzeko makinak, tornu bertikalak, funtzio anitzeko makinak eta automatizazio-soluzioak. Halaber, mekanizazio-ingeniaritzan aholkularitza espezializatua eskaintzen du, bezeroen ekoizpen-prozesuak aztertuz, kalitatea, produktibitatea, eraginkortasuna eta fabrikazio-kostuak optimizatzen dituzten irtenbideak garatzeko.

Bere lidergoa bikaintasun teknologikoan, etengabeko berrikuntzan, pertsonalizazio-gaitasunean, bezeroarekiko hurbiltasunean eta nazioarteko orientazio sendoan oinarritzen da.




### DANOBAT

Danobat doitasun handiko makina-erremintak eta fabrikazio sistemak garatzen dituen enpresa globala da, zazpi hamarkadatik gorako industria esperientzia duena.

Bere jarduera nazioarteko hiru markaren inguruan antolatzen da: Danobat, artezteko makinetan, tornuetan eta mekanizazio-prozesuetara zuzendutako sistema robotikoen diseinuan eta fabrikazioan espezializatua; Overbeck, mende bat baino gehiagoko ibilbidea duen eta doitasun handiko barnealdeak artezteko makinetan erreferentea den Alemaniako enpresa historikoa; eta Hembrug, gogorrean torneatzeko soluzioetan eta makina berean torneaketa eta artezketa konbinatzen dituzten teknologia hibridoetan liderra den Herbehereetako konpainia.

Hiru markek proposamen teknologiko osagarri bat osatzen dute, industriaren behar zorrotzeneri erantzutera bideratua, berrikuntza eta espezializazio estrategia komun baten pean.



### GOIMEK

Goimek espezialista da doitasunezko mekanizazioen eta mekanizazio handien zerbitzuetan, oso zorrotzak diren sektoreetako pieza estrategikoetarako; horien artean, sektore aeroespaziala, energia eolikoa eta ekipo ondasunak. Ekoizpen bitartekorik aurreratuenak eta azken belaunaldiko egiaztapen tresnak dauzka.



### ID EKO MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

40 urteko ibilbidearekin, Ideko fabrikazio aurreratua bultzatzeko erreferentziatzko aliatu estrategiko bihurtu da, I+G+b jardueraren bidez industriaren eraldaketan lagunduz. Fabrikazio-teknologietan espezializatuta, makina-erreminta eta aeronautika bezalako sektore estrategikoen ekoizpen-gaitasunak eta lehiakortasuna hobetzeko soluzio berritzaileak garatzen ditu.

Bere ikerketa-jarduera batez ere doitasunezko makina eta prozesuetan, manufacturing-ari aplikatutako digitalizazioan eta robotika aurreratuan oinarritzen da, teknologiaren transferentzia eta industria-sarearen sendotzea sustatuz.

## Mondragon Korporazioaren parte

Danobatgroup Mondragon Korporazioan integratutako enpresa kooperatiboen talde bat da, munduko erreferentzia lankidetzaren esparruan eta Europako enpresa talde kooperatibo nagusietako bat.

Mondragoneko kide diren enpresek, enpresa ulertzeko modu bera partekatzen dute, non pertsonak erdigunean dauden, balio partekatua sortzen den eta ingurunearen garapen jasangarrian laguntzen den, lankidetzaren, kudeaketan parte-hartze demokratikoaren eta epe luzeko ikuspegiaren bidez.


Enpresa eredu honek erakusten du posible dela globalki lehiatzea eta haztea enpleguarekin konpromiso irmoa, gizarte-kohesio eta lurralde-errotzea sustatu eta mantenduz.

Kooperatiba gisa, lana lehenesten da eta kapitalaren zati handi bat berrinbertitzen da, proiektua indartzeko, etorkizuna bermatzeko eta aktiboki ingurunea garatzeko.

Mondragoneko ekosistemak, gainera, interkooperazio eta elkartasun mekanismoak ditu, enpresek elkarri laguntzeko, baliabideak,

ezagutza eta gaitasunak partekatzeko, eta erronka desberdinei batera erantzuteko aukera ematen dutenak, guztien erresilientzia indartuz.


Mondragonen esparruan, enpresa egiteko modu bakar eta bereizgarri honek Danobatgroupeko enpresen eragin positiboa biderkatzen du, eta etorkizun jasangarriago baterako egiten duten ekarpena indartzen du.



## Talde globala

Beti bezeroarengandik hurbil egoteko eta hari jarduera modu eraginkorrean egiten laguntzeko, taldearen negozioiek badauzkate:

- Fabrikazio lantegiak Espainian, Alemanian, Herbeheretan, Errumanian eta AEBetan.
- Bikaintasun zentroak Espainian, Alemanian, Italian, Herbeheretan, Estatu Batuetan eta Txinan.
- Ordezkaritza komertzialak eta zerbitzu teknikokoak beste herrialde askotan.



## Bisioa eta balioak

Danobatgroup enpresa kooperatibozko talde bat da, pertsonak eta lankidetzaren ardatz balio propioak dituena. Bakoitzaren talentua, dedikazioa eta konpromisoa dira bere oinarriak, eta lankidetzaren bidez emaitzak lortzeko gakoak.

Inguruan aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzeko enpresa-arloan aurrera egiten duen taldea da, legatu zentzuarekin lan egiten duena, kudeaketa-eredu sendo eta partekatu baten bidez.

Batzen eta desberdin izatera bultzatzen duen hurrengo balioetan oinarritzen da taldea.



### Konpromisoa

Langile eta enpresako bazkide gisa inplikatzeko gaitasuna.




### Bezerearen orientazioa

Haien beharrak ezagututa eta haiekin lankidetzan arituta, soluziorik onenak eskaini ahal dizkiegulako, eta elkarrekin hazi.



### Berrikuntza

Etengabe eboluzionatzen ari den mundu honetan, aldaketarako prest eta irekita gaudelako.



### Lankidetzaren

Proiektu komun eta partekatu baterako elkarrekin lan egitea gure enpresa proiektuaren iraunkortasunerako oinarria delako.



### Konfiantza

Hartzen ditugun erabakiak betetzen ditugulako eta erabaki horiekin koherenteak garelako.

## Izaera berritzailea

Berrikuntza funtsezko faktorea da Danobatgroupek azken hamarkadetan izandako hazkunde iraunkorrerako, eta bere identitate ikur bihurtu da. Taldeak bere DNari atxikita darama berrikuntza, eta horrek definitzen du, eta bokazio bihurtzen, beti abangoardia teknologikoan egoteko eta erronken aurretik joateko beharra. Ahalik eta eraginkortasun handiena lortzera eta betiere bezeroa gogobetetzera bideratutako berrikuntza.

Ikuspegi horri esker, Danobatgroupeko enpresak bereizi egin dira fabrikazio aurreratuen lehiaren agertokian, eta soluzio eta garapen teknologiko aurreratuenak eskaintzen dizkiete balio erantsi handiko teknologia eskatzen duten sektore estrategikoei.

### I+Gko laborategi izatetik berrikuntza motor izatera: Ideko

Danobatgroupek berrikuntzarekin duen konpromisoa Idekoren bidez gauzatzen da, funtsezko tresna baita fabrikazio aurreratuan puntako teknologien diseinua eta garapena sustatzeko.

Ideko 1986an sortu zen, garai hartan Mondragon Korporazioaren makina-erremintaren dibisioa zenaren erronka teknologikoei erantzuteko. Harrezkero, makina-erremintaren eta fabrikazio aurreratuen sektoreko berrikuntza gidatzen du, eta ikerketa teknologikoa soluzio erreal bihurtzen du bezeroek planteatutako erronketarako.

Zentro teknologikoaren bitartez, eta lehen mailako beste enpresa eta erakunde batzuekin elkarlanean, Danobatgroupek ikerketa eta garapen ekosistema paregabea sortu du bere enpresentzat.



Patente  
aktiboak

58

patente  
familia

I+G+I-n  
diharduten  
pertsonek:

%15

Danobatgroupeko  
pertsonek guztien

I+G+I-ko  
proiektu  
aktiboak

88

proiektu taldeko enpresen  
multzorako

## Etorkizuneko fabrika hurbiltzen duten teknologiak

Etorkizuneko fabrika autonomo, adimendun eta iraunkorrerantz aurrera egiteko, Danobatgroupek bost ildo estrategikotan jartzen du fokua:

### Green manufacturing

Energia kontsumoan ahalik eta efizienteenak izateko lan egiten du, eta zero akatseko ikuspegiarekin berritzen du taldeak, akatsak saihesteko eta piezak lehen saiakeratik zuzen fabrikatzea bermatuko duten soluzio teknologikoak eskaintzeko.

Taldeko makinen diseinuan berritzen du, ikuspegi jasangarri batekin, taladrinen, hozgarrien eta beste baliabide batzuen kontsumoa murrizten saiatuta erabilera fasean, eta bizi zikloaren amaieran osagaiak birziklatzea eta berrerabiltzea errazteko bideak aztertuz.

Gainera, adimen artifizialeko teknikak aplikatzen ari da mantentze prediktiborako, prozesuak optimizatzeko eta balizko akatsei aurrea hartzeko, akatsak eta hausturak saihesteko, besteak beste.

### Doitasunezko ingeniariatza

Danobatgroupeko enpresen espezializazio maila handiak eta bezeroen kalitate estandarrek makina, sistema eta fabrikazio prozesu zorrotz eta doitasun handikoen garapena eskatzen dute.

Horri erantzuteko, aldaketa termikoak, kalibrazioa, bolumetrikoa, lubrifikazio hidrostatikoa eta hidrodinamikoa, kalkulu estatikoak, dinamikoak, termikoak eta multifisikoak lantzen dituzten adituak ditugu, diseinuaren ziklo osoa zehaztasunaren ikuspegitik jorratu ahal izateko.

### Digitalizazioa eta AA

Eraldaketa digitalak industria soluzioen automatizazio maila handitzea ekarri du, eta makina-erreminten fabrikatzaileentzat erronka berri bat izan da.

Azken urteetan eraldaketa digitaleko prozesu garrantzitsu bati ekin dio, eta soluzio digitalen eskaintza zabala izan da emaitza (hardwarea eta softwarea), zeinarekin gero eta baloratuagoa den ondasun bat lortu ahal den: gure ekipoen funtzionamendu datuak.

Horri esker eta dauden AAko teknika berrienak konbinatuz, taldeko enpresak eskaintza digital indartsua garatzen ari dira, merkatuaren premien arabera.

### Mekanizazio prozesuak

Mekanizazio alternatibak bilatzen ditu, azken erabiltzaileei diferentzial produktiboa eta lehiakorra emateko, hozte teknika berriak edo fabrikazio tresna eta ziklo berriak ezarriz.

Kudeaketako eta antolaketako tresna berritzaileak erabiltzen lagunduz, esaterako, prozesu industrialak simulatzeko programak erabiltzen lagunduz, produkzio prozesuak optimizatzeko, fabrikazio kostuen murrizketan efizienteagoak izateko, kalitatea hobetzeko eta segurtasuna bermatzeko lan egiten du.

### Dinamika eta kontrola

Makinen eta fabrikazio prozesuen portaera dinamiko hobetzeko berritzen du, bibrazio arazoaren konponketarako bi ikuspegi desberdin eta osagarri oinarri hartuta. Batetik, makinen eta eragingailuen diseinu dinamikoak, eta, bestetik, hainbat mekanizazio prozesutan zarata eta bibrazioak ezabatzen dituzten garapen soluzio espezifikoaren diagnostikoa eta ondorengo inplementazioa.



## Berrikuntza irekia

Danobatgroupeko enpresa guztiek berrikuntza irekia bereganatu dute, eta modu sistematikoan garatzen dute. Erakundeaz kanpoko eragileak kontuan hartuta, berrikuntza irekiak ezagutza maila handiagoa edukitzeko eta beste teknologia batzuk eskuratzeko aukera ematen die taldeko enpresei. Prozesu hori bai nazioko bai nazioarteko zenbait erakunde eta organismorekin egindako aliantzen bidez gauzatzen da.

30 urte baino gehiagoan, Danobatgroupek aktiboki parte hartu du nazioarteko partzuergoetan, I+G arloko Europako finantzaketa programen barruan. Esperientzia horri esker, harreman sare zabala eratu du bere espezializazio alorretan.

Taldeko enpresek garatutako soluzioen espezializazio eta sofistikazio teknologiko handia dela eta, beharrezkoa izan da kolaboratzaileen sare zabal bat eratzea, barruan garatutako gaitasunen osagarri. Testuinguru horretan, nabarmentzekoa da startup-ekiko lankidetzari emandako bultzada; izan ere, hainbat arlotan espezializatuta egonik, taldeko enpresen produktuei aplikatzen zaizkien baliabide teknologikoen portfolioan teknologia eta ezagutza berriak txertatzeko prozesua bizkortzen dute.

Era berean, Idekoren bitartez, Danobatgroupek etengabeko lankidetzari eusten dio hainbat gaitan erreferente diren erakundeekin. Lankidetzen barruan sartzen dira espezializazio planak kontratatzea, doktore tesiak lantzea, proiektu espezifikoak kontratatzea eta ikertzaileak aldi baterako trukatzeko.

Jarraian, unibertsitateekin eta ikerketa zentroekin berrikuntzaren arloan Idekoren bidez egindako lankidetzak nagusiak zerrendatzen dira.



Waterloo Unibertsitatea,  
Makinen Dinamikan.



Budapest Unibertsitatea,  
Ibilbideen Kontrolean.



ETH – Zurich,  
Doitasuneko Ingeniaritzan



UPV – EHU,  
Mekanizazio Prozesuetan.



BCAM, Basque Center of Applied  
Mathematics, Adimen Artifizialean.



Bremengo Unibertsitatea,,  
Arteketan.



Software Competence Center  
Hagenberg (SCCH) – Austria,  
Software Adimendunear.



BRTA,  
Basque Research Technology Alliance.

## Aliantzak, negozio berriak eta interkooperazioa

Hazkunde jasangarrirako estrategiaren esparruan, Danobatgroupek negozio berriak sortzea bultzatzen du, bere soluzio zorroa indartuko eta osatuko duten nitxo emergenteak identifikatuz, eta, aldi berean, taldeko enpresen artean jarduera partekatuak garatzen laguntzen du.



Aliantzen strategiaren ondorioz, 2015ean, Savvy Data Systems enpresaren partaidetza nagusia bereganatu zuen, zeina digitalizazio prozesuetan eta datuen kudeaketan espezializatuta baitago. Eragiketa horren bidez, Danobatgroupek digitalizazio industrialaren eta 4.0 industriaren aldeko apustua berretsi zuen.



2022an, Danobatgroupek partaidetza nagusia bereganatu zuen NOVAK enpresan. Hala, taldeak artezketaren eta biraketa mekanizazioen arloan dituen gaitasunak handitu ditu, eta, gainera, Danobat eta Soraluze makinetan txertatuta dauden core piezen kalitatea hobetu du.



SAEKI beste urrats bat da dibertsifikatzeko beste erakunde batzuekin sinergiak bilatzeko. Kasu honetan, Danobatgroup Suitzako SAEKI startuparen kapitalean sartu da, doitasunezko robotikaren esparruan murgiltzeko.

Apustu hori hazkunde organiko eta ez-organikoaren konbinazio baten bidez gauzatzen da, eta horren barruan sartzen dira enpresa berriak erostea, potentzial handiko startupetan parte hartzea eta konpainia osagarriekin edo ondokoekin aliantza estrategikoak ezartzea, beren balio proposamena zabaltzera eta negozio aukera berriak lortzera bideratuta.

Aldi berean, taldeak interkooperazioa sustatzen du Mondragon Korporazioaren barruan, eta beste enpresa eta enpresa talde batzuekin lankidetzan aritzen da, hala nola MIArekin, Mondragoneko Automatizazio Industrialeko dibisioarekin, makina-erremintaren eta fabrikazio aurreratuaren esparruan sinergiak sortzeko.

Ikuspegi hori osatzeko, aliantzak eta lankidetzak ugari egiten dira eragile industrial, teknologiko, akademiko eta instituzionalekin, bai tokiko mailan, bai nazioartean. Testuinguru horretan, Danobatgroupek klusterretan eta Debegesa, Hegan edo BIND 4.0 bezalako erakundeetan parte hartzen du, baita erakunde publikoek bultzatutako ekimenetan ere.



Era berean, taldea nazioko eta nazioarteko erreferentziazko elkarte sektorialetako kide da, hala nola AFM, SERCOBE, VDW, AMT edo UCIMU, eta fabrikazio aurreratuan espezializatutako foro eta plataformetan parte hartzen du, besteak beste, CIRP, Euspen edo SAMPE.

Jasangarritasunaren arloan, Danobatgroupek hainbat ekimenetan parte hartzen du, hala nola Mondragoneko Jasangarritasun Batzordean edo AFM Greenen, eta Mondragonen palankatuta BasqueESGen edo ASETTen ere badago, besteak beste.

Aliantza eta kolaborazio aipagarri batzuk:



Ekipo Ondasunen Proiektu Traktoreak, Mondragonen Automatizazio Industrialaren dibisioaren barruan (MIA), makina-erremintaren alorrean sinergiak sortzea bilatzen du, Fagor Arrasate, Fagor Automation, Mondragon Assembly eta Danobatgroup kooperatiben arteko proiektu bateratuak sustatuz.



Basque Research and Technology Alliance (BRTA) Eusko Jaurlaritzaren, SPRI taldearen, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru aldundien eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko 16 eragile zientifiko teknologikoren arteko lankidetzaz hitzarmena da.



Adimen Artifizialaren Euskal Zentroaren helburua da Euskadin Adimen Artifizialaren garapena gidatzea eta bultzatzea, enpresen lehiakortasuna eta euskal gizartearen ongizatea hobetzeko.



Aeronautikako Fabrikazio Aurreratuko Zentroaren (CFAA) helburua da fabrikazioko teknologia aurreratuak garatzea, industria sarera azkar transferitzeko moduan garatuta, ekonomiaren funtsezko sektore horretara bideratuta.



Makina-erreminta, Osagarri, Osagai eta Tresnen Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.



Debarrena eta inguruko eskualdeen ekosistema industrial osatzen duten eragile guztien arteko lankidetzaz eta lerrokatzea bilatzen duen strategiaren parte da BPTD. Eragile horien artean daude barrutiko enpresak, erakundeak eta instituzioak, "Ekonomia industrialaren hazkundearen zerbitzura egongo den eta berritzailea eta jasagarria izango den lan esparru berria" sortzea helburu.



Ekoizpen Ingeniaritzarako Nazioarteko Akademia (CIRP) ekoizpen ingeniartzaren ikerketan munduko erakunde liderra da, eta prozesuen, makinen eta sistemen diseinuaren, optimizazioaren, kontrolaren eta kudeaketaren abangoardian dago.



Sheffieldeko Unibertsitateko Manufaktura Aurreratuko Ikerketa Zentroa (AMRC) munduko klaseko zentro bat da, eta munduan aitzindariak diren mekanizazioari, fabrikazioari eta material aurreratuak buruzko ikerketak egiten ditu industria aeroespazialerako eta balio handiko beste fabrikazio sektore batzuetarako.



Interakzioaren, lankidetzaren eta ezagutza partekatuen bidez Gipuzkoako industrian aurrerapen teknologikoa inspiratzen eta sortzen duen fundazioa.



Ekipo-ondasunen fabrikatzaileen elkarte nazionala.

01, 02 eta 03 ataletako ekintzak Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuekin eta GRI estandarrekin lerrokatuta daude.

17 ALIANZAS PARA LOGRAR LOS OBJETIVOS



GRI 2 \_\_ [2-1] [2-22] [2-23] [2-28]

GRI 3 \_\_ [3-1] [3-2]

GRI 201 \_\_ [201-1]

# Sustainable growth

In advanced manufacturing



INGURUMENA

## Deskarbonizatu 04



Ekintza klimatikoa eta ingurumenaren zaintza: gaurtik etorkizuna babestea

Ingurumena kudeatzeko sistema	25
Deskarbonizazioa	27
Energiaren kudeaketa eta kontsumoa	31
Ekonomia zirkularra	34
Kutsadura eta biodibertsitatea	39

Zaintzea eta eraldatzea 05

Denboran sendotzea 06

## Danobatgroupek aurrera egiten du...



## Ingurumena kudeatzeko sistema

Taldeko enpresa garrantzitsuenek Ingurumena Kudeatzeko Sistema (IKS) dute 2002 urteaz geroztik, ISO 14001 Arauaren arabera egoitza nagusi guztietan egina eta ziurtatua. Gainera, 2024an Danobat Hembrugek Herbehereetan duen lantegiak bat egin zuen sistema horrekin, eta 2025ean Alemaniako Danobat Overbeckek ere lortu du ziurtagiri hau. Ziurtagiri propiorik ez izan arren, taldeko gainerako enpresek dagoeneko ziurtatuta dauden enpresen ingurumen kudeaketako sistema aplikatzen dute. Jarduteko irizpide orokorra zuhurtziaren printzipioan oinarritzen da, prebentziozko ikuspegi baten bidez.

Danobaten ISO 14001, ingurumena Kudeatzeko Sistema, Energia Kudeatzeko Sistemarekin osatzen da, ISO-50001 Arauaren arabera ziurtatua, eta erakundearen karbono-aztarnaren kalkuluaren egiaztapena du, ISO 14064 eta GHGren arabera.

Soralucen, produktua diseinatzeko eta garapen prozesuak kudeatzeko sistema (ekodiseinua) ISO 14006 arauaren arabera ziurtatuta dago.

Sistema hauek, Kalitatea Kudeatzeko Sistemarekin (ISO 9001 arauaren arabera ziurtatua) eta Laneko Segurtasuna eta Osasuna Kudeatzeko Sistemarekin batera (ISO 45001 arauaren arabera ziurtatua), Kudeaketa Sistema Integratua osatzen dute. Kudeaketa sistema horien kudeaketa operatiboa kudeaketa sistemen edo eragikaten departamentuak egiten du, Zuzendaritzak izendatutako pertsonak gainbegiratuta.

Taldeko Enpresen Kudeaketa Politika Integratua dagozkion webguneetan argitaratuta dago, eta horietan agerian geratzen da ingurumena errespetatzeko konpromisoa, produktuen eta jardueren ingurumen eta energia inpaktua minimizatzea eta betiere prebentzio printzipioaren pean jardutekoa; hori guztia etengabeko hobekuntzako ingurune baten barruan.

Politika horrek erreferentzia argia egiten die berotegi efektuko gasen emisioei, karbono aztarnari eta hornidura jasangarriari.

Ingurumena Kudeatzeko Sistemak, eta baita Danobateko Sistema Energetikoa eta Soraluceko Ekodiseinu Sistema ere, urtero ikuskatzen ditu AENORek. Aipatzekoa da azken 5 urteetan ez dela desadostasunik antzeman horietan.

UNE-ISO  
14001

Ingurumena  
kudeatzeko sistema.

UNE-ISO  
14006

Produktua diseinatzeko  
eta garapen prozesuak  
kudeatzeko sistema  
(ekodiseinua).


UNE-ISO  
50001

Energia  
Kudeatzeko Sistema.

UNE-ISO  
14064  
GHG  
Protocol

Karbono  
aztarna egiaztatuta.

Ondoren, ingurumena kudeatzeko sistemarekin eta ingurumen arriskuen prebentziara bideratutako baliabideekin lotutako datu garrantzitsu batzuk erakusten dira:



Informazio gehiagorako, ikus: 2. Eranskina, KSari egotzitako zuzeneko gastuak


# Deskarbonizazioa

Danobatgroupek onartzen du enpresek funtsezko zeregina dutela klima aldaketa arintzeko, eta deskarbonizazioa bere iraunkortasun ikuspegiaren ardatz nagusi gisa hartzen du. Esparru hori materialtasun bikoitzaren ikuspegitik identifikatu da material gisa, bai taldearen jarduerak kliman sortzen dituen inpaktu garrantzitsuengatik, bai lotutako finantza inplikazioengatik.

Karbono gutxiko ekonomia baterako trantsizioak berekin dakar erregulazio, kostu eta inbertsio arriskuak kudeatzea, eta arrisku horiek areagotu egin daitezke trantsizio prozesua behar bezala kudeatu ezean. Aldi berean, testuinguru horrek ekonomia deskarbonizatu batekin lerrokatutako soluzioen, gaitasunen eta negozio ereduen garapenari lotutako aukerak sortzen ditu.



Testuinguru horri erantzuteko, Danobatgroupek erakundearen deskarbonizazioa bultzatzeko konpromisoa hartzen du, 1., 2. eta 3. irismenetan berotegi efektuko gasen emisioak pixkanaka murriztera bideratutako plan egituratu baten bidez, neutraltasun klimatikorantz aurrera eginez.



EKINTZA-ILDO NAGUSIAK



## Klima aldaketaren ondoriozko arriskuen azterketa

Klima aldaketaren ondorio ekonomikoen ebaluazioak eta kudeaketak gero eta garrantzi handiagoa dutela onartuta, azpimarratzekoa da, 2023az geroztik, taldeko enpresa nagusiek — Danobatek eta Soraluek — klima aldaketaren ondoriozko finantza arriskuen azterketak dituztela, Task Force on Climate related Financial Disclosures (TCFD) erreferentzia esparruaren arabera landuak. Azterketa horiek ikuspegi bat ematen dute fenomeno horri lotutako arrisku eta aukera finantzarioak identifikatzeko, kudeatzeko eta aprobetxatzeko.

Arrisku fisiko jakin batzuei lotutako balizko inpaktu garrantzitsuak identifikatu direnez, 2025ean azterketa espezifiko eta sakonagoa egin da, taldeak Euskadin dituen kokapenetan zentratuta. Lan osagarri horri esker, zehatzago ebaluatu ahal izan dira instalazioen mehatxuekiko esposizioa, hala nola tenperaturen igoerarekiko eta uholde arriskuarekiko esposizioa, eta mehatxu horien aurrean instalazioek duten zaurgarritasuna, eta, horrela, taldeak lurralde horretan dituen instalazioek aurreratze, egokitzeko eta epe luzera planifikatzeko duten gaitasuna indartu dute.

# Karbono aztarna neurtzea eta emisioak murrizteko plana

## Karbono aztarna neurtzea

Erakundearen karbono aztarna Danobatgroupek klima aldaketaren arloan egiten duena kudeatzeko eta jarraitzeko adierazle nagusia da.


2022an neurketa horretarako tresna bat zehaztu zen, berotegi efektuko gasen emisioak ebaluatzeko eta kuantifikatzeko (1, 2 eta 3 irismena), eta, horrela, etorkizunerako deskarbonizazio integraleko plan bat sortzeko lanean aurrera egin ahal izateko.

2023az geroztik, Danobatek, Soralucek eta Idekok urtero neurtzen dituzte erakundearen karbono aztarnaren 3 irismenak, onartutako metodologiaren arabera. Goimekek, berriz, 2025ean neurketa hori txertatzeko beharrezkoak diren oinarri teknikoak eta antolakuntzakoak ezarri ditu, eta, horrela, taldeak klima aldaketa arintzeko egiten dituen ahaleginekin bat egiten du pixkanaka.

Azpimarratzekoa da Danobaten neurketa AENORek ziurtatu duela ISO 14064 araudien eta GHGren jarraibideen arabera, eta, horrela, erreferentziazko nazioarteko estandarrekin duen konpromisoa baliozkotu duela.


### 1 irismena

Zuzeneko emisioak CO2 Tonetan



### 2 irismena

Zeharkako emisioak CO2 Tonetan




### 3 irismena

Zeharkako beste BEG isuriak CO2 Tonetan



Informazio gehiagorako, ikus: 3. eranskina, GRI 305-1 Berotegi efektuko gasen zuzeneko isuriak (1 irismena), 305-2 Energiari lotutako berotegi efektuko gasen zeharkako isuriak (2 irismena) eta 305-3 Zeharkako beste BEG isuriak (3 irismena)

## Karbono-intentsitatearen bilakaera (KI)



# Emisioak murrizteko plana


## 1 eta 2 irismeneko emisioak murrizteko planak

2025ean, 214/2025 Errege Dekretuan xedatutakoa betez, Danobatek eta Soralucek 1 eta 2 irismenei dagokien berotegi efektuko gasen emisioak murrizteko plana zehaztu 2030erako bi irismen horietan neutraltasuna lortzeko helburuarekin. Plan hori erakundearen karbono aztarnaren azterketatik abiatuta egin da, eta bost urtetik gorako denbora muga ezartzen du, emisioen murrizketa progresibora bideratutako egiturazko neurriak gehituta.

Definitutako murrizketa plana Science Based Targets (SBTi) ekimenaren irizpideekin lerrotuta dago, eta Parisko Akordioaren helburuekin koherentea da, batez besteko temperatura globalaren igoera 1,5 °C-ra mugatzeko xedearekin bereziki.

Planaren jarraipena aldizka egiten da, helburuen betetze maila berrikusiz eta beharrezkoa denean neurriak eguneratuz, eta informazio hori modu irisgarri eta gardenean argitaratzen da, kooperatiba bakoitzaren Informazio Ez-finantzarioko Egoeretan.

2026rako, Danobatgroupek aurreikusten du talderako deskarbonizazio arloko bide orri komun bat definitzeko lanetan aurrera egitea, hasiera batean 1 eta 2 irismenetan zentratuta, ikuspegiak lerrotatzeko eta talde mailan ahaleginak koordinatzeko.



## Zeharkako emisioak murrizteko beste neurri batzuk (3 Irismena)

1 eta 2 Irismenei lotutako murrizketa planez gain, Danobatgroup balio kateari lotutako 3 Irismeneko emisioak murrizteko hainbat ekintza lantzen ari da. Neurri horiek batez ere eremu batzuetan zentratzen dira, hala nola mugikortasunean eta hornitzaileekiko harremanean, eragiketa propioetatik harago deskarbonizazioan pixkanaka aurrera egiteko.

## Mugikortasun jasangarriko Plana

Langileen lanerako joan-etorriek dituzten eragin negatiboek eragindako emisioak murrizteko asmoz, 2022an taldeak diagnostiko bat egin zuen mugikortasunean espezializatutako aholkularitza enpresa baten bidez, eta bertan pertsonen %70ek baino gehiagok parte hartu zuen. Diagnostiko horren ondoren, 2023an, Mugikortasun plan espezifiko onartu zen taldeko enpresak dauden kokapen bakoitzerako.

Planetik eratorritako ekintza garrantzitsuenetako bat 2023an aplikazio (APP) bat inplementatzea izan zen, langileen artean mugikortasun jasangarriagoko ohiturak sustatzeko, ibilgailuaren erabilera partekatua eta beste garraio aukera batzuen erabilera erraztuz.

2025ean, hasierako diagnostikoa egin zenetik hiru urte igaro ondoren, mugikortasunaren gaineko beste inkesta bat egin da, datuak eguneratzeko, ezarritako planen bilakaera aztertzeke eta langileen mugikortasun estrategia fintzeko.

Azterketa hori oinarri hartuta, taldeak mugikortasun jasangarriko neurriak areagotu eta zabaldu ditu, Aplikazioan beste ekimen osagarri batzuk sartuz. Horien artean nabarmentzekoak dira planten artean mugitzeko bizikleta elektrikoak erostea, bizikletak aparkatzeko espazioak handitu eta hobetzea, autoa partekatzen duten pertsonentzat lehentasunezko aparkaleku gehiago gordetzea, administrazio publikoarekin lankidetzan aritzea instalazioetatik gertu garraio publikoko geltokiak hobetzeko, eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko gune berriak instalatzen jarraitzea.

**2025eko adierazle nagusiak:**

- Taldeko pertsonetatik **%39,6** aplikazioan alta emanda daude
- 46.4729 kg/co2** igortzea saihestu da (2024an baino %65,7 gehiago)
- 512.925 km** kilometro egin dira modu jasangarrian (kotxe partekatuan, bizikletan, oinez eta garraio publikoan)
- +7.500 €** Erabiltzaile aktiboenentzako pizgarrietan banatuta

### Hornidura katearen jardueri lotutako emisioak

Taldeko enpresen emisioen zati handi bat eragiketa propioetatik kanpo sortzen denez, taldeak hornidura kateari lotutako emisioen murrizketa sustatzeko ekimenak bultzatzen ditu.

Jarduera horiek hornidura katearen kudeaketa arduratsurako planaren esparruan garatzen dira, memoria honetako Gobernantza atalean zehaztuta.

# Energiaren kudeaketa eta kontsumoa

Danobatgroupek energiaren kudeaketa bere jasagarritasun ikuspegiaren eta energiaren ikuspegitik enpresa eredu jasagarriago baterako trantsizioan egiten duen ekarpenaren elementu nagusi gisa integratzen du. Taldeak onartzen du energiaren erabilerak eta jatorriak eragin nabarmena dutela bere ingurumen jardunean eta etorkizuneko erresilientzian, eta esparru horren kudeaketa aurreratua funtsezko bektorea dela inpaktu garrantzitsuak prebenitzeko, arriskuak kudeatzeko eta horri lotutako aukereztaz baliatzeko.



Horregatik, taldeak energia eredu eraginkorrago eta jasagarriago baterantz bideratzen du bere jarduera. Esparru horretan, Danobatgroupek aurrerapen progresiboa bultzatzen du % 100 berriztagarria den energia hornidura baterantz, autokontsumoa bultzatuz energia sorkuntza propioaren bidez eta, gainerako kontsumorako, Jatorri Bermeekin ziurtatutako elektrizitatearen erabilerarekin osatuz.

EKINTZA-ILDO NAGUSIAK >

## Energia efizientzia

Azken urteotan, Danobatgroupek hainbat erreforma egin ditu bere instalazioetan, eta horrek hobekuntza garrantzitsuak ekarri ditu, bai pertsonen ongizaterako, bai efizientzia energetikorako. Erreforma horiek ingurumenaren arloan eragiten dute nabarmenki, eta, batez ere, gasaren eta energia elektrikoaren kontsumoan (aire konprimituaren ihesak detektatzeko eta desagerrarazteko sistema; LED bidezko argiztapena, argiaren araberako erregulazioarekin; berokuntza eta argiztapen sistemaren monitorizazioa eta kontrola), kudeaketa eraginkorra eta kontsumoaren murrizketa ahalbidetuta.

Danobaten kasuan, energia kudeatzeko ikuspegi sistematiko hori indartu egin da eskuratutako ISO 50001 ziurtagiriarekin, zeinak energiaren alorreko jarduna etengabe hobetzera eta enpresaren jarduerari lotutako kontsumoa murriztera bideratutako sistema bat ezarri dela egiaztatzen baitu.

Era berean, nabarmentzekoa da, duela hainbat urtetik, Danobatgroupeko enpresek panel fotovoltaikoak jarri dituztela eraikin gehienetan. 2025ean planta gehiagotan jarri dira plakak, eta datozen urteetan ere ekimen horrekin jarraitzeko asmoa dute plaka gehiago instalatuz.



**+ 8.000 m<sup>2</sup>**  
azalera fotovoltaikoa

Gainera, 2023an taldeak milioi bat eurotik gorako inbertsioa egin zuen bere instalazioetatik kanpo kokatutako eguzki baratze batean. 2025ean kanpoko proiektu fotovoltaiko hori gauzatzen lan egin da, eta azkenean urte horretako abenduan jarri zen martxan. Ekimen horri esker, 2026tik aurrera, hango energia berriztagarria bere mix energetikoan sartu ahal izango da.

Ekintza konbinatu horiek taldeak kontsumitutako energiaren herena taldeak berak sortua izateko diseinatuta daude.

Gainera, eraginkortasun eta kudeaketa energetikoaren arloko jarduera horiek taldearen instalazio jakin batzuen diseinu jasangarriarekin indartu dira. Zentzu horretan, Soraluceko bi fabrikazio plantek LEED (Leadership in Energy & Environmental Design) ziurtagiria dute, Urre mailan, eta eraginkortasun energetikoaren, baliabideen erabilera arduratsuaren eta eraikinen ingurumen kalitatearen esparruetan, esaterako, jarduerak egiten dituztela egiaztatzen du.



## Gasaren eta elektrizitatearen kontsumoak

Gas eta elektrizitate kontsumoei dagokienez, energiaren erabileren kontrol zorrotzak egiten dira. Berokuntza sistema osoa, batetik, eta argiztapen sistemak eta erabilera desberdinetarako energia kontsumoak, bestetik, etengabe monitorizatzen dituzte taldeko enpresek. Lortutako datuek hobera egiteko ekintzak gauzatzeko aukera ematen dute.

Ondoren, taldeko EAeko lantegi nagusien energia kontsumoei buruzko datu esanguratsu batzuk adierazten dira.


### Energia kontsumoak (kWh)



#### Energia elektrikoa



#### Gas Naturala



Informazio gehiagorako, ikus: 4. eranskina, GRI 302-1 Energia kontsumoa erakunde barruan

### Energia elektrikoaren kontsumoak 2025an

**%100**  
berriztagarria

**%14,7**  
Instalazio berriztagarri propioen energia elektrikoa

**%85,3**  
Sareko energia elektrikoa GdOrekin  
(Jatorri berriztagarriko bermeak)

# Ekonomia zirkularra

Danobatgroupek ekonomia zirkularra esparru garrantzitsutzat jotzen du baliabideen erabileran industria eredu eraginkorrago baterantz aurrera egiteko eta bere produktu eta prozesuen jasangarritasuna indartzeko. Ekonomia zirkularreko ereduatarako orientazioa gai estrategikotzat jotzen da taldearen balio proposamena indartzeko.



Errealitate horren eta eredu zirkularragoetarako trantsizioak eskaintzen dituen aukeren aurrean, taldeko enpresek aurrera egiten dute baliabideen erabilera eraginkorra sustatzen, berrerabilera sustatuz eta bizitza baliagarriaren amaieran produktuen birziklapena maximizatuz; produktu berrien garapenean ingurumen eta energia irizpideak txertatzen; ingurumen inpaktuak murriztera, iraunkortasuna handitzera eta materialen erabilera optimizatzen bideratutako berrikuntzan; materialen eta osagaien birziklapen segurua eta ez-kutsatzailea bultzatzen; eta hondakinen kudeaketa eta birziklapen egokiari buruzko sentsibilizazio eta kontzientziazio programak mantentzen eta indartzen.

EKINTZA-ILDO NAGUSIAK >

## Baliabideen erabilera eta lehengaien kontsumoak

Baliabideen erabilera jasangarriaren sustapena taldearen ingurumen-ikuspegiaren lehentasun nagusietako bat da, eta fabrikatzen ditugun produktuen beharrei, jarduera produktiboari zein erakundearen eguneroko funtzionamenduari lotutako kontsumoen kudeaketa arduratsuaren bidez lantzen da.

Eskuratutako lehengai gehienak taldearen negozioek fabrikatzen dituzten produktuetan txertatzen dira, eta, ondorioz, haien kontsumoa zuzenki proportzionala da proiektuen diseinutik, fabrikaziotik eta saldu osteko zerbitzutik eratorritako premiekiko. Gure produktu etako ekonomia zirkularreko ekintzen xehetasun gehiagorako, ikus "eko-diseinua eta ingurumen-irizpideak produktuen garapenean" atala.

Gainera, urtero produkzio faseetan sortutako ingurumen alderdiak identifikatu, erregistratu eta ebaluatu egiten dira, elkartutako inpaktuak zehazteko eta bizi zikloaren ikuspegitik haien garrantzia norainokoa den ikusteko. Alderdi horietako bakoitzaren magnitudea eta arriskugarritasuna zehazten dira, eta haien garrantzi maila norainokoa den ikusten, dagozkion ekintzak egiteko.

Uraren kontsumoari dagokionez, ez da garrantzitsutzat jotzen taldearen jarduerarako. Ura komunetan, jantokian, lurzoruak garbitzeko ekortze makina industrialetan eta proiektuetan jasotako ebaketa hozgarriak sortzeko erabiltzen da. Etengabe monitorizatzen da kontsumoa, eta abisu alarmak daude bolumenak gaituz gero edo aurreikusitako ordutegitik kanpo kontsumituz gero.



### Ur kontsumoa (m<sup>3</sup>)




Informazio gehiagorako, ikus: 5. eranskina, GRI 303-5 Ur kontsumoa.

Lehengaien kontsumoari dagokionez, azpimarratu behar da material berriztagarrien eta ez-berriztagarrien erabilera murrizteko neurriak hartu direla behar diren kontsumoen kopurua optimizatzeko.

Era berean, taldeak askotariko jarduerak jarri ditu abian taladrinaren kontsumoa txikitzeko. Soralucen, adibidez, taladrinaren % 12 murriztu da, lantegien antolaketa, ordena eta garbitasuna hobetzeko taldeak (OOLI) egindako hainbat ekintzaren bidez, eta Goimek-en taladrina murrizteko plan bat dago 2021etik martxan gutxieneko kantitateen araberako lubrifikazio-sistemaren bidez (MQL, «Minimal Quantity Lubrication»).

Ondoren, kontsumoen adierazle esanguratsuenak aurkezten dira.

	2023	2024	2025
<b>Berriztagarriak</b>			
<b>Lehengaiak</b> (altzairua, galdaketa, kobrea...)	4.985.817 kg	4.986.402 kg	5.678.381 kg
<b>Prozesuko materialak</b> (lubrikatzaileak, errefrigeratzaileak, hozgarriak...)	0 kg	0 kg	0 kg
<b>Enbalatzeko materialak</b> (plastikoa, kartoia eta egurra)	1.096.625 kg	1.325.599 kg	1.027.156 kg
<b>Berriztagarriak guztira</b>	<b>6.082.442 kg</b>	<b>6.312.001 kg</b>	<b>6.705.537 kg</b>
<b>Berriztaezinak</b>			
<b>Lehengaiak</b> (altzairua, galdaketa, kobrea...)	237.614 kg	158.453 kg	296.146 kg
<b>Prozesuko materialak</b> (lubrikatzaileak, errefrigeratzaileak, hozgarriak...)	62.111 kg	50.717 kg	57.809 kg
<b>Enbalatzeko materialak</b> (plastikoa, kartoia eta egurra)	95.077 kg	113.192 kg	84.123 kg
<b>Berriztagarriak guztira</b>	<b>394.802 kg</b>	<b>322.362 kg</b>	<b>438.078 kg</b>
<b>Guztira</b>			
<b>Lehengaiak</b> (altzairua, galdaketa, kobrea...)	5.223.431 kg	5.144.855 kg	5.974.527 kg
<b>Prozesuko materialak</b> (lubrikatzaileak, errefrigeratzaileak, hozgarriak...)	62.111 kg	50.717 kg	57.809 kg
<b>Enbalatzeko materialak</b> (plastikoa, kartoia eta egurra)	1.191.702 kg	1.325.599 kg	1.111.279 kg
<b>Guztira</b>	<b>6.477.244 kg</b>	<b>6.634.362 kg</b>	<b>7.143.615 kg</b>



Informazio gehiagorako, ikus: 6. eranskina, Materialen eta lehengaien kontsumoa

## Ekodiseinua eta ingurumen irizpideak produktuen garapenean

Produktuek beren bizi ziklo osoan zehar ingurumenean duten inpaktua minimizatzea funtsezko ardatza da Danobatgroupeko fabrikazio lantegien jasangarritasuneko estrategian. Ikuspegi horretatik, ekonomia zirkularreko eta ekodiseinuko printzipioetan oinarritutako fabrikazio soluzioen garapena funtsezkoa da industria jasangarriago baterantz aurrera egiteko.

### ISO 14006 Ekodiseinuan

Produktu batek bere bizialdian sortzen duen ingurumen inpaktua, berez, produktu hori diseinatu zenean hartutako erabakiek baldintzatzen dute. Hori dela eta, oso eraginkorrak diren produktuak diseinatzea funtsezko faktorea da enpresak ingurumena errespetatzeko eta zaintzeko konpromisoa bete dezan.

Enpresaren konpromiso horren erakusgarri argia da Soraluze taldeko enpresak produktuen diseinuan eta garapenean ingurumen irizpideak integratuz produktuak ingurumenaren aldetik hobetu eta ingurumen jarduna ere hobetu izana eta horregatik ISO 14006 ziurtagiria eskuratu izana. Ziurtagiri horrek, besteak beste, abantaila hauek ematen ditu:

- Iraunkortasunean, estandarizazioan eta desmuntatzeko erraztasunean oinarritutako diseinu zirkularra.
- Motor eraginkorren, sistema birsortzaileen eta Sleep Moderen bidezko optimizazio energetikoa.
- Prozesuak, denbora eta energia kontsumoa murrizten dituzten funtzio anitzeko makinak.
- Garraio optimizatua eta enbalaje jasangarria.
- Makinaren produkzioari lotutako emisioak konpentsatzeko aukera, bezeroak hala eskatzen badu.

Aipatu behar da Soraluze izan zela ziurtagiri hori lortu zuen makina-erremintaren sektoreko lehen enpresa. Gaur arte, 27 makina modelo daude ekodiseinuan ziurtatuta, eta horietako bat 2025eko modelo berri bat da. Datu hauek Soraluce fakturazioaren gainean ekodiseinatutako makinak/modeloen % 95 mantentzeko helburuan egindako aurrerapena islatzen dute.

### Produktuen bizi zikloaren analisia

2024an DHD T Hobi Tornuaren Bizi Zikloaren Analisia (BZA) egin ondoren, 2025ean Danobatek, lortutako emaitzetan oinarrituta, Produktuaren Karbono Azternari (HCP) eta Produktuaren Ingurumen Azternari (HAP) buruzko dagokien txostena egin du. Hiru txostenak — ACV, HCP eta HAP — Bureau Veritasek ikuskatu eta ziurtatu ditu 2025ean.

### Produktu mekanizatuen azterna neurtzea

Goimek kooperatibak, berriz, bezeroei eskatutako osagaien mekanizazioari lotutako karbono azternaren kalkulua eskaintzeko gaitasuna garatu du. Datu hori, ekoizpen prozesuari buruzko beste adierazle batzuekin batera, Produktuaren Pasaporte Digital batean sar daiteke. Arlo horretan, Goimekek datu plataformetako prototipoekin lan egin du dagoeneko, eta, horrela, informazio mota hori bere eskaintzan integratzeko gaitasuna eskuratu du.



## Produktu eta zerbitzu jasangarriak garatzeko berrikuntza ekintzak

Danobatgroupeko enpresek ikerketa eta garapen lan handia egiten duten bezeroei eskaintzen dizkien produktu eta zerbitzuak jasangarritasunaren arloan ere hobetzeko. Ikuspegi hori makinaren bizi ziklo osoko produktu, prozesu, teknologia eta zerbitzuak hartzen dituzten ildo osagarrien bidez artikulatzen da.

Batetik, ekipoak birmanufakturatzeke, modernizatzeke eta eguneratzeke ekimenak eta proiektuak bultzatzen dira, aktibo industrialen bizitza baliagarria luzatzeko eta dagoeneko instalatuta dauden baliabideen aprobetxamendua maximizatzeke. Aldi berean, ekoizpen prozesu eraginkorragoak eta zehatzagoak garatzeko lan handia egiten da, eta horiekin energia kontsumoak, materialak eta atzera lanak murriztu daitezke, prestazioak eta kalitatea arriskuan jarri gabe.

Beste ardatz garrantzitsu bat prozesu eta teknologia optimoak bilatzea eta ezartzea da, ekodiseinu irizpideak eta produktuaren bizi zikloan portaera onena duten materialen eta soluzio teknikoaren erabilera gehituz. Arlo horretan, digitalizazioak eta biki digitalek probak, saiakuntzak eta balidazioak ingurune birtualetara eramateko aukera ematen dute, prototipo fisikoak, denborak eta kontsumoak murriztuta.

Azkenik, digitalizazioaren eta adimen artifizialaren bidez, taldeko enpresek zerbitzu aurreratu berriak garatu dituzte (monitorizazioa, datuen analisia eta mantentze lan prediktiboak, besteak beste), akatsak aurreikusteko, eragiketa optimizatzeke eta bezeroei erabaki eraginkorragoak hartzen laguntzeko. Oro har, lerro horiek eredu industrial iraunkorragoa, eraginkorragoa eta ekonomia zirkularraren printzipioekin lerrotatua indartzen dute.

2025ean zehar ekonomia zirkularrarekin lotuta garatu diren I+G+b proiektu garrantzitsuenak:

<b>XPRINT</b>	Aldagarrtasun Handiko Fabrikazio Prozesuetan Anomaliak Hautematea	<b>SHIELDBOT</b>	Eraikinen babes termikoa modu jasangarri eta eraginkorrean optimizatzeke hurrengo belaunaldiko robotika
<b>PRECIA</b>	Aeronautika sektorerako material konposatuak zehatz eta egonkor mekanizatzeke sistema elektronikoa adimenduna	<b>CREDIT</b>	Zirkulartasuna eta berrmanufakturatzea ahalbidetzen dituzten biki digitalak
<b>QSAT</b>	Laguntza teknikoko zerbitzua eraldatzea IA sortzailean oinarritutako laguntzaile adimendunaren bidez, eredu kuantiko-inspiratuen konpresioarekin	<b>SUPERPAN</b>	Belaunaldi berriko panel konposatu autoinarritu jasangarri eta ultrarinak
<b>BIKIDOI</b>	Biki digitalen bidez fresatzeko eta mandrinatzeko makinatutako doitasuna kontrolatzea	<b>STEP-2</b>	Eraginkortasun oso handiko Potentzia Transmisioko Sistemen belaunaldi berriko teknologiak
<b>REMANIA</b>	IA teknologietan oinarritutako birmanufakturatzearen bidez bizitza baliagarria zabaltzeke estrategia berriak	<b>iBLADE</b>	Paper industriako errasketen euskarrietako Eraginkortasun eta Jasangarritasunerako irtenbide adimendunak
<b>MAREK</b>	Erresistentzia eta Iraunkortasun Handiko osagaiak lortzeke estaldura sistemak ikertzea	<b>REED (r1)</b>	Pieza bolumentrikoen fabrikaziorako balio-sare erantzunkor eta berrkonfiguragarria
<b>SMARTROT</b>	Mekanizazio prozesuak optimizatzeke moteltze aurreratu sistemak dituzten tren birakari adimendunak	<b>LASERWAY</b>	Fabrikazio jasangarri eta malgurako abiadura oso handiko laser prozesuak
<b>ECOFAS2</b>	Fabrikazio Gehigarriko teknologia jasangarriak eta produktiboak, industriaren lehiakortasuna hobetzeko	<b>BIOSTRUCT</b>	Zuntzez indartutako material konposatu bio-oinarridunak fabrikatzeko prozesua, egitura-aplikazioetarako
<b>XWAVE</b>	Ekoizpen bitartekoaren funtsezko funtzionalitateen birtualizazioa ikertzea, bizitza zikloan zehar birkonfigurazio dinamikoa ahalbidetzeko		

## Hondakinen kudeaketa

Danobatgroupek hondakinen kudeaketa eraginkorra funtsezko elementutzat jotzen du baliabideen erabilera arduratsua bermatzeko eta bere industria-jarduerari lotutako ingurumen-inkaktuak minimizatzeko. Konpromiso horren barruan sartzen dira sortutako hondakinen kudeaketa egokia, materialen eta osagaien birziklapen segurua, eraginkorra eta kutsadurarik gabea ahalbidetzea, bai eta hondakinen kudeaketa eta birziklapen egokiari buruzko sentsibilizazio- eta kontzientziazio-programak etengabe indartzea ere.

Testuinguru honetan makinaria fabrikatzea jarduera nagusia duten taldeko enpresek hondakinak kudeatzeko sistema bat dute ezarrita, hondakinen hiru aldaerak arautzen dituena: arriskutsuak, ez-arriskutsuak eta hiri hondakinekin pareka daitezkeenak.

Hondakin mota bakoitza behar bezala bereizteko jarraibide teknikoak daude, batez ere hondakin arriskutsuak bereizteko; izan ere, horiek biltzeko sistema propio bat daukate, horretan trebatuta dauden eta esperientzia duten pertsonen egina. Hondakin horiek, ondoren, behar bezala baimendutako kudeatzaileen bidez kudeatzen dira.

Hondakin ez-arriskutsuei eta hiriko hondakinekin parekatu daitezkeenei dagokienez, badaude horiek bereizteko eta bakoitza bere aldetik biltzeko sistemak, edukiontzi egokiekin, papera eta kartoia trinkotzeko sistemekin eta hondakin horiek

birziklatzeko edo balioztatzeko baimendutako kudeatzaileekin.




Taldeak urtero handitzen du hondakinen birziklatze tasa, ez bakarrik industria hondakinak, historikoki jada birziklatzen zirenak, baita hiri hondakinekin pareka daitezkeenak eta pertsonen jarduerarekin lotuago daudenak ere. Hondakinen bereizketa eta osteko birziklapena hobetzeko beste urrats bat da hori, zabortegian buka dezaketen hondakinak minimizatzeko.

## Ekoizlearen Erantzukizun Hedatua (EEH) eta ontzien kudeaketa iraunkorrarekin dugun konpromisoa




Iraunkortasunarekin eta araudia betetzearekin dugun konpromisoaren harira, taldeko enpresek aurrerapauso nabarmenak eman dituzte Ekoizlearen Erantzukizun Hedatua (EEH) ezartzeko bidean. Taldeko ekoizpen-enpresa guztiek Ekoizlearen Erantzukizun Hedatuaren Sistema Kolektibo (EEHSK) bati atxikitzeko prozesua formalizatu dute, merkatura jartzen ditugun ontzien kudeaketa eraginkor eta iraunkorra bermatuz.

## Hondakinak



### Hondakin arriskutsuak



### Hondakin ez-arriskutsuak



### Hirikoekin pareka daitezkeen hondakinak



\*Industria-nabeetako berrikuntzekin lotutako hazkundea

[Informazio gehiagorako, ikus: 7. eranskina, GRI 306-3 Sortutako hondakinak, 306-4 Ezabatzea xede ez duten hondakinak eta 306-5 Ezabatzea xede duten hondakinak](#)

# Kutsadura eta biodibertsitatea

Danobatgruppen industria jarduerak atmosferaren, uraren eta lurzoruen kutsadurari lotutako arriskuak prebentzio ikuspegi batetik kudeatzea dakar, bere industria jardueraren izaerarekin eta aplikatu beharreko arau esparruarekin bat etorritz.

Materialtasun bikoitzaren analisiaren arabera, eremu honetan identifikatutako inpaktuak materialtzat hartzeko behar diren larritasun eta probabilitate atalaseetara iristen ez badira ere, emisio eta isurketa kutsagarrien prebentzioa eta kontrola kudeaketa lehentasun gisa eta taldearen jasangarritasun ikuspegiaren barruko eremu garrantzitsu gisa mantentzen dira. Planteamendu horrek interes taldeen konfiantza indartzen eta Danobatgruppen posizionamendua sendotzen laguntzen du, industria erreferente arduratsu gisa.



Oinarri horren gainean, Danobatgroupek kutsadura prebenitzeko eta aplikagarria den ingurumen araudia zorrotz betetzen dela ziurtatzeko konpromisoa ezartzen du, ISO, 14001 arauaren arabera ziurtatutako ingurumen kudeaketako sisteman oinarrituz, zeinak ingurumen jardunaren kontrolerako, jarraipenerako eta etengabeko hobekuntzarako esparru egituratu bat ematen duen.

EKINTZA-ILDO NAGUSIAK



ISO 14001 arauaren eskakizunekin eta kutsaduraren prebentzioarekin eta ingurumen jardunaren etengabeko hobekuntzarekin duten konpromisoarekin bat etorritz, taldeko enpresek ingurumen alderdi garrantzitsuak identifikatzeko eta horien jarraipena egiteko sistema bat dute. Horien artean daude, besteak beste, hondakinak, atmosferara egindako emisioak, ur-kontsumoa, zarata, substantzia arriskutsuen erabilera, baliabide naturalen kontsumoa eta lurzoruen balizko kutsadura.

Ingurumen alderdi garrantzitsuen ebaluazioa egin ondoren, inplementatu beharreko ingurumen programa zehazten da. Gaineratu behar da ingurumen alderdi garrantzitsuen erregistroek, gehienetan, hobekuntzak islatzen dituztela adierazleetan.

Taldearen jardueraren izaeragatik, ingurumenean eragindako inpaktua neurrizkoa da. Hala ere, Danobatgroupek ez dio uzten identifikatutako ingurumen alderdien adierazle guztiak etengabe hobetzeko kudeaketari, aldizkako kontrolen, ingurumen-adierazleen eta barne-berrikuspenen bidez.

Hornidura eta bermeen inguruan, taldeko enpresek ingurumen-erantzukizuneko aseguru bat dute, beren jarduerak eragin dezakeen ingurumen-istripu posible bat estaltzeko behar besteko estaldurarekin.

Lurzorua, ura eta atmosfera kutsa dezaketen jardueren multzoan sailkatuta egon arren, Danobatgroupen jarduerak duen eragin maila ez da garrantzitsua.

Instalazioen kokapena eta jardueraren izaera direla eta, ez da biodibertsitatean ezta babestutako eremuetan ere inpaktu esanguratsurik identifikatzen. Ondorioz, ez da aurreikusten kontserbazio-neurri espezifikorik ezartzea, lurzoru potentzialki kutsatuen azterketa eta, hala badagokio, jarduera amaitzean haien leheneratzea baino harago.

Horretarako, taldeko enpresa nagusiek ONDOAN aholkularitza-enpresak egindako txosten bat dute, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren arabera egina (Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen du dekretu horrek). Txosten hori lurzoru kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duen abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren arabera egin zen. Txosten horren arabera, lurzorian eragina izateko probabilitatea IV. mailakoa da (ez da beharrezkoa esku hartzea), eta ingurunearen sentsibilitatea oso txikia; beraz, txostenetik

ateratzen den ondorioa da neurri zuzentzaile edo prebentiboekin eta enpresen kokalekuan dauden defentsa neurriekin eta kontrol eta jarraipen neurriekin minimizatu edo ekidingo dela ingurumenari (lurzorua eta lur azpiko urak) zein giza osasunari eragindako kaltea.

Hori gorabehera, taldeko enpresek larrialdi plan bat daukate ezarrita, eta plan horretan natura ingurunearen kutsadura posibleari buruzko arrisku nabarmenenak identifikatzen dira, baita ingurumen istripu edo intzidenteen aurrean hartu beharreko prebentzio eta jardute neurriak ere. Plan horretan, besteak beste, gerta litezkeen suteek edo isuriek eragindako istripuekin lotutako neurriak jasotzen dira.

Illo horretan, Danobatgroupeko instalazioek abisuak emateko eta alarma jotzeko sistemak dituzte, bai eta aplikatu beharreko araudiak sua itzaltzeko eskatzen dituen bitartekoak ere.

Urak kudeatzeko, euri urak eta ur sanitarioak bereizten dituen sare bat dago, eta kontuan izan behar da ur sanitarioak kokaleku bakoitzeko arazketa estazioetara konektatuta daudela. Danobatgroupeko enpresek ez dute inolako isurketa kutsatzailerik egiten, ez ibaietara, ez sistema naturaletara.

Produktu kimikoek dakarten kutsadura arriskuari dagokionez, taldeak APQ erregelamenduaren arabera eraikitako, mantendutako eta ikuskatutako biltegiak ditu,

Relacionado con el riesgo de contaminación por productos químicos, el grupo dispone de almacenes construidos, mantenidos e inspeccionados según reglamento APQ, pertsonak eta ingurumena babesteko, eta produktu kimikoen biltegiatzea modu seguruan, legearekin bat eta kontrolpean egiten dela bermatzeko.

Jardueraren inpaktua ez da garrantzitsutzat jotzen ez akustikari ez argiztapenari dagokienez; hori dela eta, funtsean, ez da neurri gehigarrikerik ezarri ohiko monitorizazio sistemetan jasotakoez gain. Araudiak eskatutako neurri horien artean daude, besteak beste, kanpoko zaraten kontrolak eta barneko zaraten kontrolak, segurtasunaren eta osasunaren esparruan.

Biodibertsitateari dagokionez, eta aurretik deskribatutako kutsadura alderdiei lotutako eragin maila txikiarekin bat etorritik, Danobatgroupen jarduerak ez du inpaktu nabarmenik sortzen ekosistemetan eta espazio babestuetan. Ondorio hori instalazioen kokapenean, kokalekuen izaera industrialean eta balio ekologiko handiko eremuekin zuzeneko interakziorik ez izatean oinarritzen da.

Ondorioz, ez da arrisku garrantzitsurik identifikatzen eta ez da neurri espezifiko gehigarrikerik behar biodibertsitatearen arloan, lurzoruen, uren eta substantzia arriskutsuen kudeaketan deskribatutako prebentzio neurriak aplikatzeaz gain, horiek zeharka laguntzen baitute ingurune naturala babesten.



Atal honetako ekintzak Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuekin eta GRI estandarrekin lerrokatuta daude.



GRI 3 — [3-3]

GRI 302 — [302-1]

GRI 303 — [303-5]

GRI 305 — [305-1] [305-2] [305-3]

GRI 306 — [306-3]

GRI 307 — [307-1]

# Sustainable growth

In advanced manufacturing


## Zaintzea eta eraldatzea <sup>05</sup>

✓  
Pertsonenganako konpromisoa: balioa eta ongizatea sortzen erakunde barruan eta kanpoan

Pertsonen profila eta enplegua	44
Lan eredia eta ordainsari printzipioak	45
Laneko osasuna eta segurtasuna	46
Talentua erakartzea, garatzea eta fidelizatzea	50
Berdintasuna, aniztasuna eta inklusioa	56
Produktu eta zerbitzuen erabiltzaileen osasuna eta segurtasuna	60
Konpromiso soziala eta inguruneari egindako ekarpena	62



## Danobatgroupek aurrera egiten du...



## Pertsona eta enplegu profila

**1492**  
Langile




**1000**

**944**

Bazkide kooperatibista

Euskadin



**162** Emakumeak



**960** Lanaldi Osoa

**40** Lanaldi Erdia

**149** Emakumeak **811** Gizonak

**13** Emakumeak **27** Gizonak


**940** Finkoak **151** Emakumeak **789** Gizonak

**60** Aldi baterako **11** Emakumeak **49** Gizonak

**%0,02** Errotazio-tasa

**100** Kontratazio berriak **23** Emakumeak **77** Gizonak

**838** Gizonak



Informazio gehiagorako, ikus: 8. Eranskina GRI 2-7 Langileak eta GRI 401-1: Kontratazio berriak eta langileen txandaketa

## Lan eredua eta ordainsari printzipioak

Bere balio korporatiboei jarraituz, Danobatgroupek ordainsari elkartasunaren printzipioa aplikatzen du erakunde osoan, eta, horren ondorioz, soldata tarte estua dago erantzukizun gutxien duten postuen eta goi zuzendaritzako postuen artean.

Printzipio horren bidez, lan ordainsaria nahikoa eta solidarioa dela adierazten da. Ordainsari eredu hori, langileak lanpostuan duen efizientzian eta errendimenduan oinarritua, eskatzen diren ezagutzak eta esperientzia, erantzukizuna eta lanpostu bakoitzean egin beharreko ahalegina kontuan hartzen dituen sistema objektibo baten gainean eraikitzen da.

Ordainsari politika hori berdin aplikatzen zaie erakundeko pertsona guztiei. Giza Baliabideen Batzordeak, Kontseilu Errektorearekin batera, pertsonen ordainsariei buruzko erabakiak onartzen eta hartzen ditu. Ordainsarien mapa etengabe berrikusten da, eta urtero egiten dira beharrezkotzat jotzen diren doikuntzak eta hobekuntzak, antolaketa aldaketen edo pertsonen esleitutako erantzukizunen funtsezko aldaketen arabera.

Aldian behin, ordainsariaren analisi konparatiboak egiten dira beste enpresa batzuekin alderatuz, ordainsarien kanpo lehiakortasuna bermatzeko.

**x 4,5**

**Danobatgroupeko langileen arteko gehieneko ordainsari aldea**



# Laneko osasuna eta segurtasuna

Pertsonen osasuna eta segurtasuna funtsezko ardatza eta gai materiala da jasagarritasunari dagokionez Danobatgroupentzat, eta eguneroko jarduerarako ezinbesteko baldintza. Taldearena bezalako industria ingurune batean, pertsonen babesara araudia betetzetik harago doa: taldeak enpleguaren ongizatearekin, konfiantzarekin eta kalitatearekin duen konpromisoaren parte da.

Makina-erremintaren eta fabrikazio aurreratuaren esparruko jarduerak berezko arriskuak dakartza, eta etengabeko kudeaketa prebentiboa eta zorrotza eskatzen dute. Laneko segurtasunak, osasun fisikoaren babesak eta ongizate psikologikoaren zaintzak eragin zuzena dute langileen bizi kalitatean, proiektu kooperatiboarekin duten konpromisoan.



Ikuspegi horrekin bat etorritik, Danobatgroupek bere langileen osasuna eta segurtasuna modu integratuean babestea ezartzen du lehentasun gisa, lan ingurune seguruak eta osasungarriak bultzatuz eta Laneko Segurtasuna eta Osasuna Kudeatzeko Sistema ziurtatua oinarrituz, taldeko enpresen kudeaketa eta etengabeko hobekuntza eredu globalean txertatutako ISO, 45001 arauaren arabera.

EKINTZA-ILDO NAGUSIAK >

## Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistema

Danobatgroupeko enpresa guztiek Lan Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistema bat dute, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea eta hori garatzeko araudia betez ezarrita, eta ISO 45001 arauaren irizpideekin lerrokatuta, osasunaren zaintza barne.

Danobat, Soraluze eta Goimek enpresek, gainera, AENORek emandako ISO 45001 ziurtagiria dute, laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan ikuspegi egituratu eta prebentibo bat aplikatzen dela egiaztatzen duena.

LAP arloko funtsezko helburuak Danobatgroupeko enpresen 2025-2028 Plan Estrategikoetan jasotzen dira. Enpresa bakoitzean Arriskuak Prebentzeko Batzorde bat dago, erakundean funtzio desberdinak dituzten pertsonen osatua (Zuzendaritza, ordezkariak, prebentzioko teknikariak eta zerbitzu medikoa). Batzorde hori planetan zehazten diren konpromisoak betetzen direla zaintzen duen organoa da.

Batzorde horren bidez, prebentzio-ordezkariek kudeaketa-planaren jarraipena egiten dute, eta, oro har, segurtasunari eta osasunari lotutako guztiaren kudeaketan parte hartzen dute. Arriskuak Prebenitzeko Batzordeak lanpostu bakoitzari dagokion arrisku ebaluazioaren bidez egiten duen kudeaketari buruzko informazioa ematen die pertsoneri. Era berean, laneko istripuen eta gertakarien ikerketaren emaitzaren berri ematen du, bai eta sistema hobetzeko hartutako ekintza zuzentzaileen berri ere.

Ezarritako protokolo eta mekanismoen bidez, gure enprekin interakzioan dauden kanpoko pertsonak segurtasun araudia betetzen dutela ziurtatzen da taldeko instalazio guztietan.

Plan horren testuinguruan, 2025ean, arrisku psikosozialak ebaluatzeko inkestak egin dira taldeko kooperatiba guztietan, eta ekintza planak aktibatu dira identifikatutako hobekuntzetarako.



Intzidentzia indizea

28,25



Absentismo maila

5,1



Lan istripuagatiko lesioak

19



Informazio gehiagorako, ikus: 9. eranskina, GRI 403-9 Lan istripuagatiko lesioak eta GRI 403-10 Laneko gaitzak eta gaixotasunak

## Osasun zerbitzu propioa

Danobatgroupek osasun zerbitzu propioa du, enpresako mediku batek eta erizain batek osatua. Besteak beste, Danobatgroupeko osasun zerbitzuak langileen osasuna zaintzen du. Zaintza lan horren barruan, 2025an honako hauek egin ziren:



Kontsultak

1603



Analitikak

910



Azterketa medikoak

754



Proba osagarriak

4

## Lagun Aro, bazkideentzako babes sozialeko sistema

Lagun Aro borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakunde bat da, eta taldeko enpresak bertako bazkide dira. Lagun Aroren zeregina da pertsonen babes sozialeko zerbitzuak ematea.

Lagun Arok estaldura sistema misto bat eskaintzen du. Zuzeneko prestazioak eta Gizarte Segurantzaren Sistema Publikoaren prestazioak eskaintzen ditu, Langile Autonomoen Erregimen Bereziaren bidez, erregimen horretan afiliatuta baitaude Danobatgroupeko pertsonak.

Lagun Arok prestazio hauek eskaintzen dizkie taldeko pertsonen:

- Kapitalizazioko prestazioak. Horien artean, erretiroagatiko, baliaezintasunagatiko eta alarguntasunagatiko prestazioak nabarmentzen dira. Kasu horietan, Lagun Aroren prestazioak sistema publikoak ematen duena osatzen du. Horrela, onuradunek bi sistemetatik jasotzen dute prestazioa.
- Banaketa-ereduko prestazioak. Langabeziagatiko laguntzari, aldi baterako ezintasunari (gaixotasun egoerak) eta osasun laguntzari lotutakoak dira. Lehenengo biek sistema publikoaren prestazioak ordezkatzen dituzte, eta hirugarrenak mediku-aseguru pribatua eskaintzen die bazkide guztiei.

## “Enpresa osasungarria” proiektua

Danobatgroupek urteak daramatza “Enpresa Osasungarria” proiektua lantzen. Proiektu horrek pertsonen osasuna hobetzea sustatzen du, horretarako hainbat ekintza eginez eta kolektiboari zuzendutako sentsibilizazio jardueretan oinarrituta.

Abian jarritako ekintzen artean, honako hauek nabarmendu behar dira:



Osasun Mentala Hobetzeko STIMULUS programa

2024tik osasun mentala hobetzeko programa bat ezarri da, langileei eta haien zuzeneko senideei arreta psikologiko konfidentziala ematea barne duena. Horrez gain barne komunikatuen bidez prestakuntza pilulak bidali zaizkie langileei erresilientziari, lan karga arautzeko aholkuei edo kontzentrazioa hobetzeko aholkuei buruz, besteak beste, eta taldeko enpresa guztietako arduradunentzako prestakuntza programa bat egin da, taldekideen artean estres sintomak detektatzen eta kudeatzen ikasteko.



Bizi etapa berri baterako trantsiziorako prestakuntza

Pertsonen ibilbide profesionalaren fase guztietan laguntzearen garrantziaz jabetuta, Danobatgroupek 59 urtetik gorako pertsonen zuzendutako prestakuntza ere eskaintzen du, erretiroa bezalako bizi etapa berri baterako trantsizioa modu aktibo eta positiboan prestatzeko.



Dieta osasungarria sustatzea

Informazio ekintzen bidez, sukaldeko buruari enpresako jantokietarako menu osasungarriagoen proposamenak eginez eta vending makinetan produktu osasungarriak sartuz.



Jantoki-zerbitzua Elgoibarren eta Bergaran

Jantoki propioa eta kooperatibaren instalazio berberetan izateak erraztu egiten du bazkaltzeko instalazioetatik kanpo joan beharrik ez izatea, bazkaltzeko denbora murriztuz.



Ariketa eta mugikortasun iraunkorra sustatzea, mugikortasun aktiboko neurriak sustatuz.

## Atzerrira doazen pertsonentzako laguntza zerbitzua

Nazioarteko taldea denez gero, Danobatgroupeko langileak maiz joaten dira atzerrira lan arrazoiengatik. Ildo horretan, taldeak gaituta dauzka bidaia batean gerta litekeen edozein ezohiko egoerari estaldura emateko beharrezko mekanismoak, “Duty of Care” araudiak ezartzen duen bezala.

Zehazki, erakundeko bazkide guztiek bidaian osasun laguntza izateko aseguru bat dute IMA Ibericaren bidez; bai eta laguntza medikoan, nazioarteko osasun arretan eta bidaietako segurtasun zerbitzuetan liderra den International SOSen zerbitzuak ere.


## Osasunari eta segurtasunari buruzko prestakuntza eta komunikazioa

Osasunaren eta segurtasunaren arloko prestakuntza eta komunikazioa funtsezkoa da Danobatgroupentzat. Urtero, langileei prestakuntza ematen zaie arlo bakoitzak dituen osasun arriskuei, segurtasunari eta laneko praktika egokiei buruz. Suteak itzaltzeko eta lehen laguntzak emateko ikastaroak ematen dira, baita ongizatearekin eta enpresa osasungarriarekin lotutako hitzaldiak eta ikastaroak ere, hala nola erretzeari uzteko ikastaroak, mindfulness-ari buruzko prestakuntza, 59 urtetik gorakoentzako erretiro aurreko prestakuntza, edo bide segurtasunari buruzko ikastaroak, besteak beste.

Aurreko guztia sentsibilizazio kanpainen, barne komunikazioaren eta barne bileren bidez osatzen da.

## Akribea proiektuari ekarpena

2021ean, Danobatgroupek Akribea proiektuarekin bat egin zuen. Proiektua, berez, Biozientzien Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (CIC bioGUNE) gidatutako ekimen bat da, OSARTEN, Mondragon Unibertsitatea eta BIOBANCO Vasco erakundeen laguntzarekin. Akribea proiektua medikuntza pertsonalizatu edo doitasunezkoan oinarritzen da, eta diagnostikoari laguntzeko datu base bat sortu nahi du, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) biztanleria aktiboaren analititik abiatuta. Ikerketa honek bost urte irauten du, eta Danobatgroupeko langileen eta Mondragoneko beste kooperatiba batzuen lankidetzaren boluntario eta anonimoa du.




# Talentua erakartzea, garatzea eta fidelizatzea

Danobatgruppen eredu kooperatiboak pertsonak kokatzen ditu enpresa proiektuaren erdigunean. Esparru horretan, talentua erakartzeko, garatzeko eta fidelizatzeko gaitasuna erabakigarria da taldeko enpresen jarraitutasuna, eta lehiakortasuna ziurtatzeko. Espezializazio tekniko handia eta etengabeko eraldaketa ezaugarri dituen sektorean, funtsezko profilen eskuragarritasuna bermatzea, talentuaren kudeaketa eredu kooperatiboarekin lerrokatuta bultzatzea eta talentu berria lortzeko kanalak indartzea erabakigarria da etorkizunerako.



Testuinguru horretan, Danobatgroupek bere Jasangarritasun Planean bere gain hartzen du bere proiektu kooperatiboaren bideragarritasunerako eta bilakaerarako beharrezkoa den talentua erakartzen, garatzen eta fidelizatzen jarraitzea; horretarako, sustatu egingo ditu kalitatezko enplegua, etengabeko ikaskuntza ibilbideen diseinua eta pertsonen konpromisoa, lotura eta kide izatearen harrotasuna indartuko dituzten lan esparru egokiak, beti ere taldearen epe luzeko jasangarritasunerako funtsezko faktore gisa.

EKINTZA-ILDO NAGUSIAK



## Talentua erakartzea

Fabrikazio industrialaren sektorea aldaketa sakonen prozesuan murgilduta dago, teknologia berriak sartu baitira. Testuinguru horretan, Danobatgroupek etengabeko erronkei aurre egiteko gai izango diren profesional berriak behar ditu.

Gazteekin duten elkarreragina etengabea da prestakuntza-prozesu osoan, eta elkarreragin hori Danobatgruppen nortasun-ezaugarria da. Horri esker, inguruko gazteek ikasketak amaitzean Danobatgruppen sartzea positiboki baloratzea lortzen du taldeak.

## Talentua erakartzeko ekintza zuzenak

Danobatgroupek marka enplegatzaile gisa sustatzen du bere burua, enplegu azoketan parte hartuz; zentro, eskola eta unibertsitateetarako bisitak antolatuz; web korporatiboan, sare sozialetan eta enplegu plataformetan (LinkedIn eta Mondragon People, esaterako) enplegu eskaintzak etengabe sustatuz eta datu base korporatiboan izena emana duten eta Danobatgroupen lan egiteko interesa adierazi duten pertsonen hileko newsletter-ak helaraziz. Baina, batez ere, bertako pertsonen egiten duten enbaxadore-lanari esker sustatzen da marka, Danobatgroupen zer egiten duten eta nola lan egiten duten beren ingurukoei kontatzean.

2025ari buruzko datu batzuk:

Enplegu azokak

5

+7.500

Lan eskaintzen hileko newsletter-era harpidetuta dauden pertsonak

## Akordio eta lankidetzak estrategikoak

Fabrikazio industriaren beharrei aurrea hartzeko, Danobatgroupek harreman sendoak eraikitzen ditu hezkuntza komunitatearekin, talentuaren espezializazioa eta profesionalizazioa helburu. Danobatgroupek lankidetzak eta aliantza hitzarmenak ditu ingeniartzaren arloan Euskadiko erakunde akademiko nagusiekin. Gainera, horrela, taldeak bere konpromiso sozialarekin bat datorren hezkuntza eta dibulgazio funtzioa betetzen du.

Aliantza horien helburua da komunitate akademikora hurbiltzea, enpresak prestakuntza prozesuetan parte har dezaten bultzatzea, eta tituludun berriek lehentasun gisa ikustea beren karrera profesionala industria sektorean garatzea; izan ere, sektore horrek oso langile espezializatuak eskatzen ditu, eta gauza erakargarri asko eskaintzen ditu, nahiz eta horiek ez diren beti agerikoak graduatu berrientzat.

Unibertsitatearen eta enpresaren arteko lankidetzak estrategia horren ondorio dira hainbat erakunde akademikoekin sinatutako hitzarmenak, hala nola UPV/EHUrekin, Nafarroako Unibertsitateko Ingeniariei Eskolarekin (Tecnun), Mondragon Unibertsitatearekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Makina Erremintaren Institutuarekin. Hitzarmen horien bidez, laguntza eta harreman mekanismoak lantzen dira, talentua makina-erremintara hurbiltzea ahalbidetzen dutenak.

## Prestakuntzan laguntzea, prestakuntza dualaren, praktiken, karrera amaierako/masterreko proiektuen eta alternantzien bidez

Danobatgroupek ikasleak industria munduan integratzea sustatzen du, formatu dual desberdinen bidez. Ildo horretan, pertsona askok praktikak egiten dituzte, modalitate dualean trebatzen dira, edo gradu amaierako zein masterreko lanak egiten dituzte taldeko enpresetan. 2025ean, 50 pertsonak baino gehiagok jaso dute prestakuntza Danobatgroupen, dauden formulen bidez.



## STEM ikasketekiko interesa areagotzea

Ekoizpen prozesuak digitalizatzeko prozesuak eta fabrika adimentsuek dakartzaten erronkek profil profesional berriak eskatzen dituzte, diziplina askoko ezagutza zientifikoak eta teknologikoak uztartuko dituzten profil profesionalak, hau da, STEM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika) izenez ezagutzen dena duten profesionalak.

Danobatgroupek fabrikazio industriaren beharrei aurrea hartzearen alde egiten du, gazteen artean bokazio zientifikoak eta teknologikoak sustatuz eta emakumeengan arreta berezia jarriz. Danobatgroupek badaki emakumeek zientzia, teknologia eta ikerketa karrerarako sarbidea izatea sustatzea funtsezkoa dela industria sektorearen jasangarritasunerako, produkzio sarearen lehiakortasunerako eta berrikuntza bultzatzeko.

Horretarako, STEM bokazioak eta erreferenteak sortzea sustatzen duten proiektu batzuetan parte hartzen du, emakumeek arlo zientifiko eta teknologikoetan egiten duten ekarpena agerian utziz eta gazteentzat inspirazio iturri izango diren erreferenteak sortuz.

Besteak beste, taldeak programa hauetan parte hartzen du:

## Elgoibarko Zientzia Azoka

Elgoibarko Udalak, ikastetxeek, enpresek eta herriko zenbait eragilek antolatutako ekitaldia, zientzia, teknologia eta berrikuntzarekin lotutako balioak sustatzeko eta Elgoibarko haur eta gazteen artean kultura zientifikoa areagotzeko.



## Bizilabe

Elhuyar Fundazioak 10 eta 19 urte bitarteko gazteei zuzendutako ekimena da, eskola programaren zurruntasunetik kanpo, gazteek teoriak eta esperimenduak garatzera bultzatzen dituen. Autonomia, sormena eta independentzia sustatuz, zientzia eta teknologiarekiko grina pizten da adin goiztiarretan.



## ZTIM HUB

Mondragon Goi Eskola Politeknikoa eta Huhezi buru dituen proiektua, enpresa sarearen eta hezkuntza sektorearen arteko lankidetzaren bidez STEM bokazioak sustatzeko, zientzia, ingeniari, teknologia eta matematikarako espazioak sortzeko smoz.



## Nesken egonaldiak enpresa industrialetan

Debarrena eskualdeko Garapen Agentziaren ekimena, industria enpresen errealitatea batxilergoko 1. urteko ikasleei hurbiltzeko, dituzten aukerez hobeto jabetuz beren etorkizun profesionala aukera dezaten.



## TFG/TFM Mondragon sariak

Mondragon Korporazioak sustatuta, gradu amaierako edo masterreko proiektua egin duten edozein unibertsitateko ikasleek XXI. mendeko erronkei erantzuteko ekarpen berritzaile eta jasangarria egiten duten lanak aintzatetsi nahi dira. Zehazki, Danobatgroupek Eraldaketa Digitalaren Saria babesten du, eraldaketa digitala bizkortzeko eta industriaren lehiakortasuna sustatzeko bi proposamen onenei zuzendua.



## Mondragon City Challenge

Gazteen artean ekintzailtzaren kultura eta balio kooperatiboak sustatzeko nazioarteko txapelketa. Ekimena El Diario Vasco egunkariak, Arrasateko Udalak, Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko Kooperatiben Kontseiluak, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak, Mondragon Korporazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Mondragon Unibertsitateak antolatzen dute.




## FIRST® LEGO® League (FLL)

2023an, Danobatgroupek lan egin du 4 eta 16 urte bitarteko gazteen artean bokazio zientifiko-teknologikoak sustatzen dituen nazioarteko hezkuntza-programa honekin 2024rako lankidetzat bat ezartzeko. Programa honek dagoeneko 250.000 gazte inspiratzen ditu 90 herrialdeetan, eta esperientzia praktikoa eta dibertigarrietan oinarritzen da, mundu errealeko arazoak konpontzeko eta etorkizun hobeak eraikitzen laguntzeko.



## Emakume teknologoari zuzendutako Ada Byron Sariak

Deustuko Unibertsitateak emakume teknologoei urtero ematen dien saria, beren ibilbide bikaina ikusarazteko.



## Gladys sariak

Emakume profesionalak ingurune digitalean egiten duten lana aintzatetsi eta haien lana ikusarazten duen saria da; aldi berean, gazteentzako erreferenteak sortzen dira informatikaren arloan. PuntuEUS Fundazioaren eta Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultatearen ekimena da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako organoaren eta Emakunderen babesa du.



## IMH sariak

IMH Campuseko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak banatzen dituen sariak Lanbide Heziketako ikasketak balioan jarri eta gizarteari egiten dioten ekarpena nabarmendu nahi ditu.



## Talentuaren kudeaketa

Danobatgroupek badauzka enpresa talde handiek eskaintzen dituzten abantailak eta aukerak (enpresa sendotasuna, barne mugikortasuna, karrera planak, etab.), enpresa ertainen abantailekin osatzen direnak, hala nola pertsona bakoitzarengandik oso hurbil dagoen tratua eta arreta, parte hartzea, etab.

Ilido horretan, taldeak uste du merkatura jo aurretik erakundearen lehendik dagoen talentua garatu eta sustatu behar dela. Bere lantaldeek duten potentziala oso handia da, eta hori maximizatuko duen sistematika bat egituratu behar du, batetik, pertsonen garapen profesionala sustatzeko, eta, bestetik, antolaketa erronkei aurre egiteko, ahal dela, erakundeko kide diren pertsonekin.

Aurrekoarekin bat etorritik, Danobatgroupek barne sustapena lehenesten duen politika bati jarraitzen dio. Hau da, kanpoko pertsonak sartu aurretik, plantillan daudenei ematen zaie aukera. Era berean, plantillako pertsona guztiei aktiboki galdetzen zaie zein diren beren helburu profesionalak, ahal den neurrian, erakundearen barruan aukerak sortzen diren bakoitzean horiek kudeatzen saiatzeko. Talentua eskas dabilen honetan, lehendik dauden gaitasunen garapena sustatzeko politikak eta mekanismoak lantzea lehiarako abantaila argia da.

Barne sustapena bultzatzeaz gain, talentua eraginkortasunez kudeatzeko, taldeak egiten dituen ekintza hauek nabarmendu behar dira:

- 2017. urteaz geroztik, talentua kudeatzeko programa batekin lan egiten da, eta programa horren barruan sartzen dira garapenerako elkarrizketak, jardunaren eta potentzialaren ebaluazioak, Bottom Up ebaluazioak, Talent Reviews direlakoak, eta asmoen kudeaketa.
- Langileen esperientzia maila guztietan kudeatzen da: komunikazioa, garapen profesionala, kudeaketan parte hartzeko mekanismoak eta erakundearen emaitzen erantzukizuna.
- Badago onboarding prozesu optimizatu bat (lehen 90 egunak): harrera plana, prestakuntza plana egitea profilen arabera, aldizkako jarraipen bilerak, etab.
- Pertsona bakoitza bere garapenaren arduraduna izateko kultura bultzatzen da, eta arduradunek beren lantaldeen garatzaile rol berria hartzen dute.
- Banakako garapen planak egiten dira, pertsonen kezkak/itxaropenak abiapuntu gisa hartuta.

- Nazioarteko erakundeekin lankidetzan jarduten da, pertsonen trukea eta atzerriko egonaldiak ahalbidetzeko, prestakuntza duten pertsonak atzerriko lantegietara lekualdatzeko helburuarekin.

2025ean barne mailan argitaratu dira

**68**  
lanpostu



## Prestakuntza eta garapen profesionala

Danobatgroupek konpromiso argia hartua du erakundeko pertsonen garapen profesionalarekin, bakoitza bere enplegarritasunaren jabe eta protagonista dela premisatzat hartuta eta prestakuntzaren ekimena pertsona bakoitzaren esku utzita. Horregatik, taldeak bere profesionalen etengabeko prestakuntzaren aldeko apustua egiten du lan bizitza osoan zehar.

Datozen urteetan, digitalizazioa, deskarbonizazioa eta halako joera globalek lehendik existitzen diren lanpostu asko eraldatzea eskatuko dute. Testuinguru horretan, eragindako pertsonak berriz kualifikatzeko prozesuak identifikatzea eta horiek sustatzeko modua egituratzea izango dira lehentasun nagusietako batzuk.

Era berean, bere jardueraren nazioartekotze maila handiari erantzuteko, Danobatgroupek atzerriko hizkuntzen etengabeko ikaskuntza sustatzen du, eta aurrez aurreko eta online hizkuntza ikastaroak jartzen ditu langileen eskura, interesen bat erakusten duten guztientzat.

Gaur egun, Danobatgroupek honako ekintza hauek egiten ditu prestakuntzaren arloan.

# 15,44

**Urteko batez besteko formakuntza-orduak pertsonako**

- Urteko Prestakuntza Plana eta/edo Banakako Garapen Planak. Bi programek trebetasun teknikoetan eta jarrerazko gaitasunei lotutako soft skill-etan jartzen dute fokua.
- LinkedIn Learning eta halako plataformen bidez ikasteko lizentziak eskuratzeko interesa duten pertsona guztientzat eskuragarri. Horrela, pertsona bakoitzak interesgarritzat jotzen dituen arlo guztietan jaso dezake prestakuntza, baita betetzen duen lanpostutik kanpo ere, norberaren interesa arrazoi bakarra izanda ere.
- Zeharkako prestakuntza-garapenak, bai departamentu mailan, bai erakunde osoan (trebetasun digitalak, zibersegurtasuna, hizkuntzak, pertsonen kudeaketa, lan arriskuen prebentzioa, etab.).
- Pertsona bakoitzaren garapenerako beharrezkoak eta arrazoizkoak diren prestakuntza ekintzen autokudeaketa.
- Lanpostuarekin lotutako master eta ikastaro luzeetarako laguntza.



Informazio gehiagorako, ikus: 10. eranskina, GRI 404-1  
Urteko prestakuntza orduak batez beste langile bakoitzeko

## Euskararen normalizazioa

Hastapenetatik, Danobatgroupek sentsibilitate berezia erakutsi du euskararekin eta euskal kulturarekin, eta pertsonak, hala nahi izanez gero, beren hizkuntzan lan egin ahal izatea sustatu du.

25 urte baino gehiago dira Danobatgroupek bere enpresa batean lehen euskara plana ezarri zuenetik, eta harrezkero taldeak euskararen erabilera areagotzeko urratsak egiten jarraitu du, pertsonak gero eta euskara gehiago jakitera motibatuz.

Era berean, Danobatgroupek euskara sustatzeko bere inguruan egiten diren hainbat ekimenetan parte hartzen du, memoria honetan konpromiso sozialari buruzko atalean aipatzen den bezala, eta ekimen sozial horietako askoren sustatzaile ere bada.

# %100

Danobatgroupeko enpresen %100ek euskara planak dauzkate.

# 204.251€

gastua euskara planetan 2025ean.



2023tik 2024ra euskararen kudeaketan aurrera egiteko eta hobetzeko asmoz, taldeko enpresa guztiak berriro ebaluatu dira eta Eusko Jaurlaritzak emandako Bikain hizkuntza kudeaketako ziurtagiria lortu dute.



Danobatgroup aitzindaria izan da makina-erremintaren sektoreko hiztegi terminologikoa bezalako baliabide linguistikoak sortzen.



Aktiboki parte hartzen da organo hauetan: **Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordea, Mondragoneko Euskara Batzordean, Euskaragileak eta INDEUS.**



Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) esparruan euskara aberastu eta sustatzeko eta herritarrak jasangarritasunaren garrantziaz kontzientziatzeko asmoz, 2023an Danobatgroupek Agenda 2030eko Hiztegi Eleanitza (euskara, gaztelania eta ingelesa) argitaratu du Elhuyarrekina eta Eusko Jaurlaritzarekin batera.



# Berdintasuna, aniztasuna eta inklusioa

Aukera berdintasuna eta aniztasunaren eta inklusioaren kudeaketa esparru garrantzitsuak dira Danobatgroupentzat, eragin zuzena baitute antolaketa kulturalan, talentua erakartzean eta fidelizatzean, eta taldea espektatiba sozial eta arautzaile emergenteekin lerrokatzean. Horregatik, Danobatgroupek gai garrantzitsu gisa integratzen ditu bere jasagarritasun ikuspegian, lan ingurune askotariko, inklusibo eta ekitatean oinarritutakoek pertsonen ongizatea, proiektu kooperatiboarekiko konpromisoa eta erakundearen garapen jasagarria bultzatzen dituztela sinetsita.



Oinarri horrekin, Danobatgroupek tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza bultzatzen ditu, erakunde osoan genero, belaunaldi, kultura eta funtzio aniztasuna baloratzen eta errespetatzen duen kultura inklusiboa sustatuz.



EKINTZA-ILDO NAGUSIAK >

Danobatgroupek konpromisoa du etorkizunean berdintasuna eta aniztasuna idealak ez izateko, baizik eta erakundearen txoko bakoitzean errealitate nabariak izateko.

Etengabeko lanaren bidez, taldea eta bere enpresak balio horiek beren jardueretan txertatzen ari dira, pertsonen kudeaketa genero ikuspegitik eraldatuz.

Gaur egun, taldeko enpresa guztiek dute berdintasun plan bat eta hori kudeatzeko batzorde propioa. Gainera, 2022az geroztik, Danobatgroup mailako Berdintasun Batzorde bat koordinatzen da, helburu bikoitzarekin:

1. Kooperatiba bakoitzean garatutako jardunbide egokiak barrutik ezagutzea eta partekatzea, eta, bisiten bidez, beste kooperatiba eta erakunde batzuen esperientziak ezagutzea, Mondragon korporazioaren foroan truke eta partaidetza bilerak eginez.
2. Kooperatiba guztientzat baliagarriak diren proiektu komunak koordinatzea eta garatzea. Horren adibide argia da kooperatiba guztientzat 2024an egindako eta 2025ean genero ikuspegitik eta dibertsitatetik eguneratutako eta hobetutako LGTBIAQ+ Gatazka eta Jazarpen protokoloa.

2025ean, ekintza nabarmen hauek egin dira:

- **Berdintasun politikak lantzea:** 2023an taldearen berdintasun eta aniztasun politika orokorra landu ondoren, 2025ean Danobatek bere politika propioa garatu du, taldeko politikaren oinarriak mantenduz baina bere erakundeko gainerako politiken formatu eta estilora egokituta.
- **Berdintasunerako Plan Estrategikoak diseinatzea:** Taldeko bi enpresak 2024an berdintasunerako bigarren Plan Estrategikoa egin ondoren, 2025ean Soralucek ere bere bigarren plana garatu du. Plan guztiak urtero REGCONen erregistratzen dituzte taldeko kooperatiba guztiek.
- **Jarraipena eta Etengabeko Hobekuntza:** Adierazleen panel bat sortu da, datuen eta adierazleen jarraipena egiteko eta urteko bilakaera aztertzeke.
- **Aholkularitza Konfidentzialerako prestakuntza:** Aholkularitza taldeak prestakuntzan jarraitu du, sexu-jazarpena eta genero arrazoiengatiko jazarpena lantzeko gaitasun espezializatua eskuratzeko, kolektibo osoarentzat ingurune seguru eta errespetuzko baterantz aurrera egiteko.
- **Sentsibilizazioa eta prestakuntza:** 2025ean zehar saio ez mistoak egin dira, generoaren arabera bereizitako taldeekin, hainbat kooperatibatan. Guztira 45 emakumek eta 82 gizonek baino gehiagok hartu dute parte.

Horrez gain, oinarrizko prestakuntza saioak egiten dira aldizka Kontseilu Errektorearekin, Kontseilu Sozialarekin eta pertsona arduradun berriekin, lidergo postuetan dauden pertsonen arlo honetan oinarrizko ezagutzak izan ditzaten bermatzeko.

- **STEAM bokazioak sustatzea:** Ikastetxeetara bisitak eginez, foroetan parte hartuz eta sariak babestuz.
- **Komunikazio inklusiboa:** Hizkuntza inklusiboaren erabileran sakondu da, hitz eta irudi bakoitzak ingurune ekitatiboagoa eraikitzeke balio duelako.
- **Sentsibilizazio kanpainak:** Danobatgroupeko maila guztietan kontzientzia handitzeko, komunikazio kanpainak abiarazi dira, sentsibilizazio pilulak eta barne aldizkarietako argitalpenak barne, baita jarduera esanguratsuak ere, hala nola otsailaren 11n, martxoaren 8an eta azaroaren 25ean.




Soldata arrakala  
Danobatgroupeko  
enpresa guztientzat.

**%11,9**


\*Gizonen eta emakumeen batez besteko soldataren arteko aldea, gizonen batez besteko soldatarekin banatuta.

Erabaki organoetan dauden emakumeen batez bestekoa emakumeen batez besteko orokorra baino handiagoa da.



**%16,2**

**Emakumeen**  
batez besteko totala



**%18,07**



**Erabaki organoetan**  
dauden emakumeen  
batez bestekoa

# Dibertsitatea gobernu organoetan eta langiletan

## Gobernu organoak

83










Pertsonak gobernu organoetan



## Pertsonak lan kategoriaren arabera

1492

Langile



Informazio gehiagorako, ikus: 11. eranskina, GRI 405-1 Dibertsitatea gobernu organoetan eta langiletan

## Bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea

Danobatgroupek aurrera egiten jarraitzen du, eta erronka berriak ezartzen. Onartzen du zaila dela erakunde igualitario bat lortzea, kontziliazio mekanismo egokiak errazten ez diren bitartean. Kontziliazioa ahalbidetzeko ekintza zehatzak formulatzea eta ezartzea betebeharra eta lehentasuna da Danobatgroupentzat.

Danobatgruppen lan egiten duten pertsonen ongizate globala eta haien familiena erakundearentzat funtsezko faktorea da.

Taldea beti punta-puntakoa izan bada ere malgutasun eta kontziliazio mekanismoak ezartzen, azken urteetan aurrerapausoak egiten jarraitu da, arlo horretan lege eskakizun guztiak zorrotz betez. Hala nola:

- Ordu-tegi murriztuen malgutasuna eta borondatezko ordu-tegi bereziak ematea maximizatu da.
- Taldeko kooperatiba batzuetan ostiral arratsaldeetan jai hartzeko aukera eman da.
- Telelana egiteko aukera eman da.

Azken batean, neurri horiekin eta beste batzuekin, Danobatgroupek bere erakundeko pertsonentzako balio proposamena handitu nahi du, kontziliaziorako aukerak hobetuz eta, horiek bultzatuz, erakundean berdintasuna ere hobetuz

### 2025an kontziliazio neurriak erabili dituzten pertsonak

Jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko baimena baliatzeko eskubidea izan duten langileen kopurua guztira: **2** Emakumeak **24** Gizonak

Jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko baimena baliatu duten langileen kopurua guztira: **2** Emakumeak **24** Gizonak

Txostenaren xede den aldian jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko baimena amaitu ondoren lanera itzuli diren langileen kopurua guztira: **7** Emakumeak **31** Gizonak

Jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko baimena amaitu ondoren lanera itzuli diren eta lanera itzuli eta 12 hilabetera enplegatuak izaten jarraitzen zuten langileen kopurua guztira: **2** Emakumeak **26** Gizonak

2025an jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko baimena hartu zuten langileen itzulera eta atxikitze tasak:

Itzulera tasa: **%0,88** Emakumeak **%1** Gizonak

Atxikipen tasa: **%1** Emakumeak **%0,96** Gizonak

## Diskriminaziorik eza eta inklusioa

Danobatgroupek integratuta dauka diskriminaziorik eza bere prozesu guztietan premisa gisa, langile guztientzako ordainsari politika igualitarioen bidez edo nazionalitate desberdinetako pertsonak kontratatuz, adinagatik, arrazagatik, generoagatik, sexu joeragatik eta erlijioagatik inor baztertu gabe.

Prozedura horiek egitate zehatzetan gauzatzen dira, esaterako, lanpostu baterako hautagaien profiletan (CV) diskriminaziorako erabil daitekeen datu oro ezabatzea. Ildo horretan, nabarmentzekoa da 2025ean dekalogo bat sortu dela hautaketa eta sustapen prozesu inklusiboetarako.

Halaber, aipatu behar da taldearen instalazioak egokiak direla eta desgaitasunen bat duten pertsonen egokituta daudela, irisgarritasun unibertsalaren irizpideak betez.

Informazio gehiagorako, ikus: 12. eranskina, GRI 401-3 Jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko baimena

# Produktu eta zerbitzuen erabiltzaileen osasuna eta segurtasuna

Danobatgroupeko enpresek eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzuen erabiltzaileen osasuna eta segurtasuna esparru material bat dira inpaktuaren ikuspegitik, alderdi horrek duen garrantzia kontuan hartuta, bereziki bezeroentzat, lehenetsuneko interes talde gisa. Arlo horretako jardura kritikoa da, eta, beraz, taldeko enpresek praktika eta eskakizun sendoak dituzte kalitate, diseinu eta ingeniartzaren arloan, gertakarien probabilitatea minimizatzen bideratuta, erabiltzaileen osasuna eta segurtasuna erdigunera ekarriz produktuak eta zerbitzuak sortzeko, garatzeko eta eskaintzeko orduan.



Oinarri horrekin, taldeko enpresek aurrera egiten dute diseinu fasetik beren produktuek erabiltzaileen osasuna eta segurtasuna bizitza ziklo osoan babesteko ikuspegi prebentiboa eta sistematikoa izatea bermatzeko, eta, horrela, bezeroen eta erabiltzaileen konfiantza indartzeko.



EKINTZA-ILDO NAGUSIAK >

Makina-erremintaren eta fabrikazio aurreratuaren sektorea eskakizun handi eta zorrotzeko ingurunea dela kontuan hartuta, non exijentzia maila etengabe hazten ari den, kalitatea eta produktuen segurtasuna ziurtatzea funtsezko faktorea da arrakastarako.

Illo horretan, Danobatgroupeko fabrikazio-enpresa guztiek dute ISO 9001 ziurtagiria, Goimeken kasuan ISO 9100arekin osatzen dena. Idekoren kasuan, UNE 166002 ziurtagiria du.

Beren produktuak erabiltzen dituzten pertsonen segurtasuna zaintzeko, Danobatgroupeko enpresak AFM Safety Premium zerbitzuari atxikita daude duela 10 urte baino gehiagotik, eta beti daude legearekin eta araudiarekin eguneratuta, are gehiago haren aurretik edo gaintik joanda ere.

Danobatgroupeko enpresek segurtasunaren arloko teknologia aurreratuenak ezarriz diseinatzen eta eraikitzen dituzte makinak, CE marka jartzeko 2006/42/CE Makinen Zuzentaraua betez, baita aplikatzekoak diren beste Zuzentarau batzuk (Bateragarritasun Elektromagnetikoa, Behe tentsioa, etab.) eta aplikagarriak diren arau harmonizatu guztiak betez ere. Azpimarratzekoa da 2025ean segurtasun arloan eguneratuta mantendu direla, eta, horrenbestez, ez dela araudi horien inguruko ez-betetze kasurik identifikatu.

Danobatgroupek lankidetza hitzarmen bat sinatu du AFMrekin (Makina Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte - Erremintak, Osagarriak, Osagaiak eta Erremintak). Hitzarmen horren barruan, AFMko segurtasun departamentuak modu proaktiboan dihardu taldea eguneratuta egon dadin, bai makinaren diseinuari aplikatzen dion araudian, bai fabrikazio espediente tekniko eguneratu batean.

Elkarte sektorialeko langileek eta taldeko enpresetan makinaren diseinuz eta eraikuntzaz arduratzen diren teknikariek egiten dituzten lan bilerak ere lankidetza jarduerak dira, eta bilera horietan, besteak beste, legeria betetzen den ala ez begiratzen da zorrotzki, legeria maiz aldatzen baita.

Horrela, Danobatgroupek ziurtatzen du etengabe informatuta egongo dela eragiten dion edozein araudiri buruz, araudi hori garatzen den unetik bertatik. Hala, AFMrekiko lankidetza egituratuari esker, taldeko enpresek aurrerapenez ezarri ahal dituzte indarrean daudenak baino zorrotzagoak diren segurtasun neurriak.



Makinei buruzko 2006/42/EE  
Zuzentaraua

**%100**  
betetzea

ISO 9001

ISO 9100

UNE 166002



# Konpromiso soziala eta inguruneari egindako ekarpena

Konpromiso soziala eta inguruneari egindako ekarpena esparru estrategiko eta gakoak dira Danobatgroupentzat. Taldearen nortasun kooperatiboarekin eta enpresa kooperatiboek beren enpresa jardura ulertzeko eta garatzeko duten moduarekin duten lotura estuaren ondorio da horren garrantzia.

Danobatgroupek epe luzeko logika batetik ulertzen du enpresa garapena, eta logika horrek balio ekonomikoaren sorrera, aurrerapen soziala, lurralde errotzea eta jarduten duen komunitateen garapena integratzen ditu. Ikuspegi hori eredu kooperatiboaren parte da, eta horrek bideratzen ditu erabakiak, kalitatezko enpleguarekiko konpromisoa eta inguruko ehun ekonomiko eta soziala indartzen laguntzea.

Esparri horretan, Danobatgroupek eraldaketa sozialean aktiboki laguntzearen alde egiten du, bizi kalitatea eta ongizate soziala hobetzera bideratutako erakunde eta proiektuei lagunduz.



EKINTZA-ILDO NAGUSIAK

## Kooperatiba Sustapenerako eta Interes Publikoko beste helburu batzuetarako funtsak (IPDK)

Gizartean inpaktu positiboa eragiteko, taldeak gizarte eraldaketako ekimenak babesten eta finantzatzen ditu, dagoeneko ezarrita dituen mekanismo eta irizpide batzuen bidez.

Danobatgroup osatzen duten kooperatibek beren irabazi garbien %10 Kooperatiben Sustapenerako eta Interes Publikoko beste helburu batzuetarako funtsera (IPDK) bideratzen dute. Funts horien zati bat kooperatiba bakoitzak kudeatzen du, zati bat Danobatgroupetik bideratzen eta kudeatzen da, eta beste zati bat Mondragoneko HKFStik – Kooperatiba arteko Heziketa eta Sustapen Fondoa – bideratzen eta kudeatzen da.

Funts horien banaketa aurretik ezarritako irizpide batzuen arabera egiten da, eta, besteak beste, honako hauek hartzen dira kontuan: laguntzaren xede den eremu geografikoa, jarduera eremuak, proiektuek gizartearentzat zein erakunde sustatzailearentzat dituen ondorioak, eta erakundeko langileek zenbateraino bermatzen duten proiektua.


Esparru horren barruan dago, adibidez, Osintxu Biziberritu proiektua, taldeko enpresa batek bultzatua, Bergarako Osintxu auzoaren biziberritzea bultzatzeko helburuarekin. Bertan dago enpresa, eta Eusko Jaurlaritzak degradatutako eremu izendatu zuen 2019an.

Era berean, Danobatgroupek bere instalazioak erabiltzen uzten du izaera sozialeko jardueretarako, Elgoibarko Arriaga poligonoaren kasuan bezala, odola emateko.

IPDK funtsez gain, taldeko atzerriko filialek eta lantegiek ere laguntzen dute urtero beren tokiko komunitateetako gizarte-ekimenetan.

2025ko ekarpenagutzira  
+ 200 erakunde onuradun

**1.063.883 €**



Ekintza horiei **Elkarrekin Eragin** programarenak gehitu behar zaizkie. Ekimen hori 2018an abiatu zen, Taldeko pertsonen inplikazio aktiboaren bidez gizartea eraldatzeko ekintzak bultzatzeko. Gainerako laguntzak ez bezala, Elkarrekin Eragin programan erakunde pertsonak proposatu eta aukeratzeko dituzte. Hiru urte irauten duen programa denez, erakunde onuradunek epe luzerako konpromisoa eta laguntza izan dezakete.

Lehenengo eta bigarren edizioen arrakastaren ostean, taldeak hirugarren edizioa jarri du martxan, eta 600.000 euro bideratu ditu honako hiru erakunde hauei eta programaren azken fasera iritsi diren 22 proiektu parte-hartzaileei:



Trantsizio energetiko justu eta jasangarri baten aldeko apustuarekin bat eginez, azpimarratzekoa da taldeak Ekian eta Ekiola ekimenen alde emandako laguntza.



Danobatgroupek 2019tik parte hartzen du inbertsio-bazkide gisa EEEK (Energiaren Euskal Erakundeak) eta MONDRAGON Korporazioko KREAN enpresak sustatutako Ekian proiektuan, Euskadiko eguzki-energia-parkerik handienean.



2025ean, Danobatgroupek Ekiola Elgoibar Mendaro proiektuan lagundu du, lurraldeko eragile publiko eta kooperatiboek eguzki energia sortzeko bultzatutako ekimen kooperatibo batean. Proiektuaren ondorioz, planta fotovoltaiko bat eraiki da Azkaraten, gutxi gorabehera 30 urteko bizitza baliagarriarekin, inguruko udalerrietako 650 familia inguru energia berriztagarri hornitzeko.

**DANOBTAGROUP**

**ELKARREKIN ERAGIN.**  
3. EDIZIOA

Gizarte erantzukizunari lotutako elkarrekin batekin lankidetzan ari zara? **Proiektu interesgarriak ezagutzen duzu?**

**Zure proposamena ezagutu nahi dugu!**

ANIMATU ZAITEZ ETA AURKEZTU ZURE ERALDAKETA SOZIALARI LOTUTAKO PROIEKTUAK!

**Eraldaketa soziala, gure ezaugarri kooperatiboetako bat da.** Danobatgroupeko kooperatiboak gure ingurunea eraldatzeko asmoarekin sortu gara, enplegu kooperatiboak sortuz, aberastasunaren banaketa bidezkoagoa eginez, enplegu, gizarte-kohezioa eta aurrerapen ekonomikoak bultzatuz. Horregatik gure etekinen zati bat ingurune horren aurrerapen ekonomiko eta soziala sustatzen duten

Jarduera bideratzen dugu. Testuinguru honetan kokatzen da Elkarrekin Eragin programa. **Danobatgroupeko pertsonen inplikazio aktiboaren bidez gizartea eraldatzeko ekintzak bultzatzeko programa berezia da.** Programa honetan zure proposatu eta aukeratzeko dituzten proiektuak, eta epe luzeko iraupena du. 3 urtean zehar onuradunek gure konpromisoa eta laguntza izango dute.

**Nolako proiektuak aurkeztu ahal ditut?**

- 1. Alorrak**  
Ongizata eta osasuna, gizarteratzea, ingurumena, hezikuntza, kirola, euskara, kultura eta gaitasuneko lankidetzak alorretako proiektuak izan ahal dira.
- 2. Laguntzen den proiektu edo elkarrekin ezaugarriak**  
**Irabazi asmorik gabeko ekimena** edo elkarrekin izan behar da laguntzen dena.
- 3. Aurkeztu behar dena**  
Zuk elkarrekin batera **proiektu konkretu bat lantzea eskatzen da**. Proiektu zahar hori eta hori bideratzeko balabideak dira aurkeztu behar direnak.
- 4. Aurrekontua**  
Guztira aukeratzeko 2 edo 3 proiektuentzat **500.000 euro** bideratuko dira (gutxi, 3 urterako laguntza); hortaz, proiektu bakoitzak 100.000 eta 200.000 euro bitartekoa izan behar da.

\*Hemendik kanpo gertatzen diren IPOkiko ohiko estekak. Zuzenean elkarrekin aurkeztu eta laguntza ditzagun hain zuzen.

**Zein da aukeraketa prozesua?**  
Danobatgroupeko Kontseilu Errektoreak jasotako proiektu guztietatik 10 inbertsioerentzat aukeratuko ditu, eta 10 horien artean bozketa kolektibo bidez laguntza jasoko duten 2/3 ekimenak hautatuko dira.

**Nora bidali behar dut proposamena?**  
barnekomunikatuak@danobatgroup.com  
2024ko urtarrilaren 15a baino lehen.

Edozein zalantza izanez gero, jarri harremanetan zure lehendakari edo Kontseilu Errektoreko kideen bati.

## Zenbait erakunderen gobernu organoetan parte hartzea

Taldea bera parte den lurraldean eta komunitatean oso errotuta dagoenez, Danobatgroupek rol historiko garrantzitsua izan du haien eraldaketa sozioekonomikoan.

Zentzu horretan, taldeak aktiboki parte hartzen du berak babesten dituen ekimenen eragile diren erakunde batzuetako gobernu organoetan. Makina Erremintaren Museoaren eta Mundukideren kasua da hori.

**ME** MAKINA  
ERREMINTA  
MUSEOA

**mundukide**  
kooperazio kooperatiboa



## Garapenerako lankidetzak eszedentziak

Danobatgroupek eszedentziei buruzko araudi berezi bat du, Mundukideren bidez garapenerako lankidetzak eszedentziak sustatu eta ahalbidetzeko.

## Kooperatiba arteko Heziketa eta Sustapenerako Funtsa

Danobatgroupeko enpresek beren IPDKren %20 Mondragonen HKSF-Hezkuntza eta Kooperatiba Sustapenerako Funtsera bideratzen dute, hezkuntzaren eta berrikuntzaren arloetako jardueretan laguntzeko.

- Kooperatibismoa sustatzea.
- Berrikuntza eta negozio berriak.
- Hezkuntza eta formakuntza.
- Komunitate jasangarriak.

Arlo horietatik ekimen batzuk nabarmendu daitezke, hala nola euskara normalizatzeko programak, hainbat negozio eremutan lankidetzak proiektuak bultzatzea edo Mondragon Venturesen bidez izaera teknologiko handiko proiektuetan egindako inbertsioak.

**357.449 €**

**Danobatgroupek Mondragonen HKSF funtsera egindako ekarpenak 2025ean**

Atal honetako ekintzak Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuekin eta GRI estandarrekin lerrokatuta daude.



GRI 2 — [2-7]

GRI 3 — [3-3]

GRI 401 — [401-1] [401-3]

GRI 403 — [403-1] [403-2] [403-3] [403-4] [403-5] [403-6] [403-9] [403-10]

GRI 404 — [404-1] [404-3]

GRI 405 — [405-1]

GRI 406

GRI 413 — [413-1]



# Sustainable growth

In advanced manufacturing



GOBERNANTZA

## Denboran sendotzea 06



Gobernantza arduratsua, etikoa eta kooperatiboa

Gobernantza eta kultura korporatiboa	69
Araudia betetzea eta jokabide etikoa	74
Informazioaren segurtasuna eta zibersegurtasuna	76
Hornidura katearen jasagarritasuna	78

07  
Materialtasun  
08  
Eranskinak

## Danobatgroupek aurrera egiten du....



Araudia betetzen, osotasun eta kontrol mekanismoak indartuz



Balio kooperatiboetan oinarritutako kultura korporatiboa sustatzen



Informazioaren babesa eta zibersegurtasuna bermatzean



Hornidura katearen kudeaketa orientatzen, taldearen eredu jasangarri eta etikoarekin bat etorritz

0

jasotako salaketa

0

ustlekteria edo eroskeria kasu

0

kasu guza eskubideen urraketen inguruan

Erakunde kulturari buruzko inkestaren parte-hartzea

≈%60

107

bazkide berri Kooperatibismoan trebatuak

ISO 27001

Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistema Zibersegurtasuneko

0

gertakari inpaktu materialarekin

+20

hornitzaile estrategikori baino gehiagori egindako ASG autoebaluazioa



Erosketa Politika Berria

Hurbileko erosketa industrialaren bolumena

+%60 +%80

CAV+Nafarroa

Estatukoa

# Hurbileko erosketa industrialaren bolumena

Danobatgroupek onartzen du gobernu ona eta kultura korporatibo sendoa funtsezko elementuak direla enpresa proiektua epe luzera ziurtatzeko, eta esparru material gisa identifikatzen ditu bere jasangarritasun estrategian, erakundearen kudeaketa arduratsuan duten zeharkako eragina dela eta.

Taldearen kultura korporatiboak lotura estua du bere eredu kooperatiboarekin eta Mondragonen berezko partaidetza, elkartasun eta erantzukidetasun balioekin, eta zeharkako eragina du erabakietan, ASG arriskuen eta inpaktuen kudeaketan eta erakundearen barne kohesioan.

Gobernantzaren, parte-hartzearen eta elkarrizketa sozialaren kudeaketa egokia funtsezkoa da pertsonen konfiantzazko, lerrokaturazko eta konpromisozko ingurune bat sortzeko.



Ikuspegi horrekin bat etorritik, taldeak konpromisoa hartzen du kultura kooperatiboa modu aktiboan indartzeko, taldeko enpresen ezaugarri bereizgarri gisa, elkarrizketa sozial gardena eta barne eta kanpo errekonozimendua bermatuz, eredu kooperatiboaren balioekin eta esparruekin lerrokatuta, epe luzean hazkunde arduratsua eta iraunkorra izateko oinarri gisa.

EKINTZA-ILDO NAGUSIAK >

## Gobernu-egitura

Danobatgroup enpresa kooperatiboaren taldea da, eta bere jardura enpresa-eredu parte-hartzaile eta inklusibo baten arabera garatzen du, parte den Mondragon Korporazioaren printzipio kooperatiboekin lerrokatuta. Eredu humanista horren helburua da enpresaren lehiakortasuna hobetzea eta pertsonen garapena sustatzea, eta, horretarako, erakundeko kide guztiek proiektu sozioekonomikoaren definizioan parte hartzea, abian jartzeko eta funtzionatzeko prozesuan inplikatzeko, eta emaitzetan erantzukizun partekatua izatea.

Kudeaketa eredu sendo eta partekatua da, legatu zentzua duena, hainbat eta hainbat mekanismoren bidez pertsonen inplikazioa sustatzen duena, eta kooperatiba bakoitzaren Estatutu, Barne Araudiaz eta beste hainbat prozedura eta politika korporatibo multzo hornitua dagoena, non taldearen jarduna arautzen duten printzipioak eta jarraibideak zehazten diren, Mondragonen kudeaketa kooperatiboaren ereduaren barruan.

Danobatgroupen antolaketa eredua bi zutabetan oinarritzen da: enpresa bazkide bakoitzaren organoak eta taldearen kooperatiba arteko organoak.

Horrek aukera ematen du Danobatgroupen jarduera kooperatiba artean kudeatzeko, non enpresa bazkide bakoitzak bere autonomia eta subiranotasuna mantentzen dituen, eta aldi berean funtzio batzuk taldeko organo korporatiboei lagatzen zaizkien eta enpresa desberdinetako pertsonen organoetan duten lankidetzaren eta parte hartzea sustatzen diren, kudeaketa efizienteagoa eta efektiboagoa izateko.

## Danobatgroupen kooperatiba arteko gobernu organoak

Organoa	Funtzioak eta ezaugarri nagusiak
<b>Batzar Nagusia</b>	Batzar Nagusia da taldeko Kooperatiben borondatea adierazteko organo gorena, kooperatibei eta haien bazkideei eragiten dieten gaiei buruz eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko erata, Estatutu Sozialetan ezarritako eskumen esparruaren barruan.
<b>Kontseilu Errektorea</b>	Kontseilu Errektorea da Danobatgroupen ordezkari, gobernu eta kudeaketarako organoa, eta horri lotutako ahalmen guztiak gauzatzen ditu, Legeak edo Estatutu hauek beste organo sozial batzuei berariaz esleitzen dizkietenak izan ezik. Kontseilu Errektoreak Mondragonek definitutako politika orokorren barruan jardungo du.
<b>Zuzendaritza Nagusia</b>	Zuzendari nagusia da, Kontseilu Errektoreak eskuordetuta, Danobatgroupen eta kooperatiba bazkideen organo betearazle gorena enpresa funtzioekin zerikusia duen guztian, eta Mondragoneko Kontseilu Nagusiko lehendakariaren zuzendaritzapean dihardu.

## Danobatgroupeko enpresa kooperatibo bakoitzaren gobernantza

Taldearen gobernantza egituraz gain, kooperatiba bakoitzak bere gobernu organoak ditu. Batzar Nagusia, non bazkide guztiek, Kontseilu Errektoreak, Kontseilu Sozialak, Zaintza Batzordeak eta Zuzendaritza Kontseiluak parte hartzen duten.

## Danobatgroupeko kooperatiba arteko batzordeak

Gainera, batzordeak sortu dira plangintza estrategikoa koordinatzeko eta horri erantzuteko. Batzordeen kopurua aldatu egiten da une bakoitzeko beharren arabera, eta Danobatgroupeko Zuzendaritza Nagusiak eskatuta edo honen onarpenarekin sortzen dira.

## Mondragoneko organoak

Azkenik, Mondragon Korporazioko gobernu organoetan parte hartzen da. Organo horien artean daude Mondragoneko Kontseilu Orokorra, Kontseilu Industrialak, Batzorde Iraunkorra eta Kongresua.

## Kooperatiba arteko elkartasun mekanismoak

Kooperatiben arteko elkartasuna Mondragonen eredu kooperatiboaren funtsezko printzipio bat da, eta bere helburua barne kohesioa indartzea, ereduaren jarraipena ziurtatzea eta enpresa hutsetik harago doan garapen solidario bat sustatzea da, ingurunean eta pertsonengan inpaktua sortuz.

Danobatgroupen, elkartasun hori kudeaketarako funtsezko tresna gisa txertatzen da, emaitzen birbanaketa, kooperatiben arteko elkarrekiko laguntza edo funts komunetan parte hartzea bezalako mekanismoen bidez.

Kooperatiba bakoitzaren soberakinak berretsita, elkartasun mekanismo bat aktibatzen da, emaitzak birmoldatuta, banaketa honen arabera:




**%8 + %5 gehigarria**

emaitza negatiboa eduki duten kooperatiben galerak konpentsatzeko.



**%10**

Dibisioaren finantza funtsetara.



**%7**

Mondragon Korporazioaren funtsetara.

Birmoldaketa egin ondoren, eta sozietateen gaineko zerga kenduta, soberakina Batzar Nagusiak erabakitzen duenaren arabera banatuko da, honako arau hauei jarraiki:



**%30**

Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta Interes Publikoko beste helburu batzuetarako Kontribuziorako (IPDK) eta Nahitaezko Erreserba Funtserako erabiliko da, gutxienez, legez ezarritako zenbatekoa.



Gainerako soberakin garbiak itzulkin kooperatiboetara eta/edo Borondatezko Erreserba Funtsera bideratuko dira.

## Kultura kooperatiboa, parte-hartzea eta elkarrizketa soziala

Taldearen negozioen eredu kooperatiboa gauzak hobeto eta modu desberdinean egiteko konpromiso pertsonal eta kolektiboan oinarritzen da. Proiektu sozioenpresarial integratzailea, solidarioa, jasangarria eta eraldatzailea sustatu nahi da, Nazio Batuen 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren printzipio inspiratzaileei jarraituz.

Horrela, taldeak konpromisoa hartzen du pertsonekin eta ingurunearekin, eta erantzukizunaren eta giza eskubideen errespetuaren kultura garatzen du. Halaber, taldeko enpresek Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) oinarritzko hitzarmenetan zehaztutako xedapenen arabera dihardute. Xedapenok honako gai hauek dituzte ardatz: elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiborako eskubidea errespetatzea; enpleguan diskriminazioa ezabatzea; behartutako edo nahitaezko lana ezabatzea eta haurren lana desagerraraztea.

Zentzu horretan, Danobatgroupek kultura kooperatibo sendoa du oinarri, parte hartzea, elkarrizketa soziala eta erabakiak hartzea egituratzen dituen elementu gisa jokatzeko duena, eta funtsezko faktorea da erakundearen kudeaketa arduratsu eta jasangarria.

### Pertsonen parte-hartzea eta elkarrizketa soziala

Pertsonen parte-hartzea eta elkarrizketa soziala etengabekoa da erakundearen egunerokoan, eta Estatutu Sozialetan zein ezarritako lan-dinamiketan eta komunikazio-bideetan islatzen da. Danobatgroupeko enpresetan sustatutako lidergo ireki eta horizontalaren estiloaren isla leiala da antolaketa-eredu hori.

Kontseilu Errektorearen, Kontseilu Sozialaren eta Zuzendaritza Kontseiluaren arteko etengabeko elkarreraginaren bidez, eta parte hartzeko beste bide batzuk ezarriz (bilera irekiak, hitzaldiak...), bermatzen da langile orok proposamenak egiteko aukera izango duela eta, aldi berean, bere ahotsa kontuan hartuko dela sail espezifikotatik kanpo dauden gizarte eta antolaketa gaiei dagokienez.

Ilido horretan, nabarmentzekoak dira taldeko enpresa guztiek gizarte-harremanetarako erreferentzia-esparru orokor gisa dituzten Estatutu Sozialak, Barne Araudia eta Lan Arauak.

Danobatgroup, halaber, gardentasunean eta barne-komunikazio arin eta eraginkorrean oinarritutako kultura batek bereizten du. Kultura hori gobernu-organoen bidez, aurkezpen eta topaketa periodikoen bidez, eta langileen ataria eta barne-komunikazioko kanalak bezalako tresnen bitartez artikulatzen da; tresna horiek aukera ematen dutelarik gai garrantzitsuei buruzko informazioa modu erregularrean partekatzeko.



## Prestakuntza eta garapena kultura kooperatiboan

Danobatgroup konturatzen da erakundeko pertsonen garapenak duen garrantziaz, pertsona horiek enpresa kudeaketaz ardura daitezzen eta lan horretan aktiboki parte har dezaten. Hori lortzeko, prestakuntza kooperatiboa kudeaketa kooperatiboaren ereduaren funtsezko osagaia da.

Horregatik, profil desberdinetara bideratutako eta formatu espezifikoak dituzten prestakuntza kooperatiboko programak daude, hala nola enpresetako gobernu organoetan sartzen diren pertsonen zuzendutako prestakuntza, zuzendariei zuzendutako prestakuntza eta bazkide berriei zuzendutakoa.

2025ean, bazkide berriei zuzendutako prestakuntza ekintzak egin dira, harrera saioen bidez, non 107 pertsonak parte hartu duten, eredu kooperatiboaren eta honen balio eta printzipioen ezagutza indartzeko.

Era berean, 2026an martxan jarriko den prestakuntza ibilbide sistematiko bat diseinatu da kontseilu errektore edo sozialetara sartzen diren pertsona guztientzat, gobernu organoetan parte hartze informatua eta arduratsua ziurtatzeko.

Azpimarratzekoa da, halaber, Hurbiltzen programa abian jarri dela, iraupen mugatuko bazkideentzako hezkuntza kooperatiboko online dinamika berri bat.

Kooperatibismoan formazioa jaso duten

# 107


bazkide berri

## Antokalentza-kulturaren ebaluazioa eta jarraipena

Erakundeko pertsonen balio eta beharrek inplikazioaren enpresa kultura bat edukitzearen garrantziaz jabetuta, 2010etik, 2-3 urtean behin, antokalentza kulturari buruzko inkestak egiten dira.

Lortutako emaitzak diagnostikorako funtsezko tresna dira, indarguneak eta hobekuntza arloak identifikatzen laguntzen du, eta kultura kooperatiboa, pertsonen konpromisoa eta antokalentza ereduaren etengabeko hobekuntza indartzera bideratutako ekintzak diseinatzeko eta horien jarraipena egiteko oinarri gisa balio du.

Testuinguru honetan, 2025ean antokalentza kulturari buruzko inkesta egin zen, eta pertsonen %60 inguruk parte hartu zuen; horrek erakusten du pertsonen inplikazio-maila handia dutela kultura korporatiboaren ebaluazio eta hobekuntza prozesuetan.



# Araudia betetzea eta jokabide etikoa

Betetze eremua, hau da, araudia betetzea eta jokabide etiko arduratsua ziurtatzera bideratutako mekanismoen multzoa, jasangarritasuneko material gisa sailkatzen da, balizko ez-betetze batek taldeko kooperatibentzat zein interes taldeentzat ekar litzakeen ondorioen larritasunagatik.



Testuinguru horretan, Danobatgroupeko enpresek osotasun eta betetze esparru sendoa bermatzeko konpromisoa hartzen dute, ustelkeria eta eroskeria prebenitzeko, informazioa ematen duten pertsonak babesteko eta enpresa etikako eta jokabideko mekanismo eraginkorrak ezartzeko, erakundearen zeharka integratuta eta politika, prozedura eta kontrol sistema egokien laguntzarekin.



EKINTZA-ILDO NAGUSIAK >

Jardute esparru orokor honetan, eta, bestek beste, ustelkeriaren eta eroskeriaren aurka borrokatzeko helburuarekin, taldeko enpresa nagusiek Betetze Programa bat landu dute, Kode Etikoa barne hartzen duena, eta honako hauek oinarri dituena: ustelkeriaren aurkako politikak, interes gatazkak, pribatutasuna eta konfidentziasuna, gatazkaren eta jazarpenaren aurrean jardutea eta Arrisku Penalak Prebenitzeko Eskuliburua.

Kode Etikoa, lotutako politikak eta Eskuliburua langile guztiei jakinarazi zaizkie negozio bakoitzaren intranetaren eta ohiko komunikazio kanalen bidez, eta, gainera, Harrera Planean informazio guztia sartu da langile berrientzat.

Araudia betetzeko programa hori Betetze Programa eraginkor izateko beharrezkoak diren aurretiazko prozesuak egin ondoren egin da, zehazki:

- Arrisku penalen diagnostikoa
- Arrisku Penalak Prebenitzeko Plana

Halaber, arrisku penalak prebenitzeko sistemaren funtzionamendua monitorizatzeko sistema bat jarri da abian, Salaketan Kanal bat prestatu da, Zaintza Batzorde bat eratu eta arautu da, eta langile guztiei jakinarazi zaie araudia betetzeari buruzko guztia.

Beste funtzio batzuen artean, batzorde horrek Kode Etikoaren zabalkundea eta ezagutza kudeatu eta sustatzen ditu; araudiaren edozein interpretazio zalantzari erantzuten dio eta gatazka egoera posibleak argitzen ditu, halakorik ez dadin gerta; salaketak eta ez-betetze posibleak ikertzen ditu, eta, kasu horretan, dagozkion ekintzak gauzatzen ditu; urtero, betetze mailari buruzko informazioa biltzen du eta Kode Etikoa berrikusten du, eta langileei berrikuspenaren emaitza eta hobekuntza ekintzak jakinarazten dizkie.

2023az geroztik, taldeko enpresek salaketa kanal anonimoa, irekia, publikoa eta irisgarria ere badute, kode etikoaren irregularitasunen edo ez-betetzeen komunikazio konfidentzial eta arina errazteko.

2025ean ez da salaketarik jaso giza eskubideen urraketa kasuengatik, ezta beste printzipio etiko batzuen urraketengatik ere. Era berean, ez da identifikatu lehia desleialarekin, praktika monopolikoekin eta lehia askearen aurkakoarekin lotutako ekintza juridikorik, ezta arlo sozial eta ekonomikoan legeak eta araudiak ez betetzerik ere.

Ustelkeria  
kasu

0

Urraketa giza  
eskubideetan

0

Jasotako salaketak

0



**Etikaren eta gardentasunaren kultura horri esker, Danobatgroupeko enpresa guztiek 2025ean lortu duten zero ustelkeriaren helburua lor daiteke.**

# Informazioaren segurtasuna eta zibersegurtasuna

Gero eta digitalizatuagoa eta arrisku teknologikoen eraginpean dagoen ingurune honetan, informazioaren segurtasunak eta zibersegurtasunak gero eta garrantzi handiagoa hartzen dute jarraitutasun operatiboa bermatzeko, jabetza intelektuala babesteko eta bezeroen, langileen eta beste interes talde batzuen konfiantza mantentzeko.

Informazioari eta sistema digitalei lotutako arriskuen kudeaketa egokia funtsezkoa da negozio ereduaren erresilientzia indartzeko, eragin operatibo eta ospe posibleei aurrea hartzeko eta aplikatu beharreko arau baldintzak betetzen direla ziurtatzeko, bai maila korporatiboan, bai taldeko enpresek eskaintzen dituzten produktuei eta soluzioei dagokienez.



Testuinguru horretan, Danobatgroupek bere gain hartzen du jasagarritasunaren arloko konpromiso gisa informazioaren segurtasuna bermatzea, kudeaketa sistema sendo eta ziurtatuaren bidez, ISO 27001 arauaren arabera, bai eta produktuaren zibersegurtasunaren arloan indarrean dagoen araudia betetzen dela ziurtatzea ere.



EKINTZA-ILDO NAGUSIAK >

## SGSI (ISKS) Informazioaren segurtasuna kudeatzeko sistema

2025etik, Danobatgroupek informazioaren segurtasuna kudeatzeko sistema bat du, ISO 27001 arauak ziurtatua, eta Euskadiko egoitza guztietan duena irismena.

Kudeaketa-sistema horren barruan honako hauek daude:

- Informazioaren segurtasunerako politika bat; funtsezko lau zutabeak babesteko diseinatutako neurri eta estrategia multzo bat – konfidentzialtasuna, erabilgarritasuna, benetakotasuna eta osotasuna –, Danobatgruppen aktiboen babesa bermatzen duena.

- Segurtasun-batzorde bat, organo aholku-emaile eta betearazle gisa jarduten duena. Segurtasun batzordeak Zuzendaritza Kontseiluari, zibersegurtasuna kudeatzeaz eta arauak betetzeaz arduratzen den organo gorenari, ematen dio horren berri, CISOren bidez (Chief information security officer).
- Era berean, lan arauen barruan, eranskin gisa sartzen dira honako hauei buruzko arauak: Erabiltzaile ekipoen kudeaketa, jabetza industrial eta intelektuala, konfidentzialtasuna, konkurrentziarik eza eta erantzukizuna. Arau multzo horren helburua da langileek informazio sistemak ondo erabiltzea.
- Gainera, informazio sistemekin lotutako edozein gertakari prebenitzeko eta kudeatzeko, negozio jarraitutasun plan bat eta zibergertakariei aurre egiteko kudeaketa prozedura bat daude.
- Azkenik, aldizkako Segurtasun Plan Director bat dago, informazioaren segurtasunaren kudeaketaren egungo egoera aztertzen duena eta etengabe hobetzeko helburuak eta jarduerak planteatzen dituena.

Gainera, araudia betetzen dela bermatzeko eta gardentasunez jokatzeko, Informazioaren Segurtasunerako Politika interes taldeen eskura jarri da, webgune korporatiboaren bidez. Era berean, politika eta lotutako arauak barneko langile guztiei jakinarazi zaizkie, eta enpresaren intranetean eskuragarri daude, guztiek eskuragarri dituztela eta ezagutzen dituztela ziurtatuz.

Modu osagarrian, zibersegurtasunaren kudeaketa langileen prestakuntza eta kontzientziazio ekintzetan ere oinarritzen da, arrisku digitalen prebentzioan eta arintzean funtsezko elementutzat jotzen baitira. Ekintza horiek informazioaren segurtasuna eguneroko operatiban integratzen eta negozio ereduaren erresilientzia indartzen laguntzen dute.

## ISO 27001



**2025eko ekitaldian ez da identifikatu eragin materialik izan duen zibersegurtasun gertakari aipagarririk, eta prebentzio eta etengabeko hobekuntza jarduerak aktibatu dira, ezarritako prozeduren arabera.**

## Zibersegurtasuna produktuan

Danobatgroupeko enpresa fabrikatzaileek produktuaren zibersegurtasuna lantzen dute, gero eta digitalagoak eta konektatuagoak diren makinaren eta soluzioen garapenari lotutako eremu emergente gisa.

Testuinguru horretan, produktuaren diseinutik zibersegurtasun irizpideak pixkanaka txertatzen ari dira, bere jarduera Europar Batasunean sortzen ari diren arau eskakizunekin lerrotatuz, hala nola Ziberresilientzia Erregelamenduarekin (Cyber Resilience Act – CRA).

CRA-k gaur egun ez duenez ziurtapen edo auditoretza zuzeneko eskemarik ezartzen, Danobatgroupek lerrokadura hori nazioartean aitortutako estandarretan oinarritzen du, hala nola IEC 62443 estandarrean; estandar horiek esparru tekniko eta antolaketa-maila egituratua, auditagarria eta industria-eremuan oso onartua eskaintzen dute.

Ikuspegi horri esker, CRAren printzipio eta eskakizunei aurrea hartu eta modu praktikoan erantzuteko aukera ematen da, produktuen zibererresilientzia indartuz haien kontzepzioetik, garapenetik, martxan jartzetik eta mantentzetik bertatik.

Taldeko enpresa fabrikatzaileek beren produktuen zibersegurtasunaren kudeaketa pixkanaka indartzeko konpromisoa hartzen dute, araudia betetzeari erantzunez, eta, horrela, makina eta soluzio seguruagoak eta erresilienteagoak eskaintzen laguntzeko.

# Hornidura katearen jasangarritasuna

Hornidura katea elementu estrategikoa da Danobatgroupentzat jasangarritasunaren ikuspegia hedatzeko, aukera ematen baitu taldearen ingurumen, gizarte eta gobernantza konpromisoak jarduera zuzenetik harago eramateko eta hornitzaileekiko eta bazkide komertzialekiko harremani lotutako arriskuen eta aukeren kudeaketa koherentea indartzeko.

Hornitzaileetan IGG irizpideen ezagutzan eta integrazio progresiboan aurrera egiteak negozio ereduaren erresilientzia indartzen laguntzen du, arrisku arautzaile, operatibo eta garrantzitsuei aurre hartzen die, eta hornidura katea bezeroen, arautzaileen eta beste interes talde batzuen itxaropenekin lerrotzen dela ziurtatzen du.



Bere eredu kooperatiboarekin eta taldeko enpresen jarduera arautzen duten jasangarritasun, etika eta integritate printzipioekin bat etorritik, Danobatgroupek bere gain hartzen du jasangarritasuna hornidura katean integratzen aurrera egiteko konpromisoa, bere hornitzaileak taldeko enpresak definitzen dituen eredu jasangarri eta etikoarekin lerrotzea bultzatuz.



EKINTZA-ILDO NAGUSIAK



Danobatgroup aurrera egiten ari da, Ategiarekin lankidetzan – Mondragon Korporazioko erosketa zentrala –, hornidura katearen kudeaketan jasangarritasuna txertatzera bideratutako hainbat dinamikaren bidez. Ikuspegi horrek taldearen ingurumen, gizarte eta gobernantza konpromisoak bere goranzko balio katera zabaltzeko helburuari erantzuten dio, eredu etiko eta iraunkorrekiko koherentzia indartuz eta etorkizuneko arriskuak prebenitzeko.

IGG irizpideen integrazio eraginkorrean aurrera egin aurretik, Danobatgroupek funtsezkotzat jotzen du bere hornitzaileen errealitatearen ezagutza egokia izatea. Helburu horrekin, taldeak IGG autoebaluazio ariketa bat jarri du abian, plataforma espezifiko baten bidez, non 20 hornitzaile estrategikok baino gehiagok parte hartu duten. Lortutako emaitzak aztertu eta berrikusi ondoren, hobekuntza ekintzak definitzea aurreikusten da, Danobatgruppen espektatiba eta estandarrekin erabat lerrotatuta ez dauden hornitzaileei zuzenduta, bai eta ebaluazioa hornitzaile gehiagotara zabaltzea ere.

Modu osagarrian, 2025ean taldeak Erosketa Politika berri bat onartu du, iraunkortasun irizpideak esplizituki txertatzen dituena eta Hornitzaileentzako Jokabide Kode batean oinarritzen dena. Kode horrek taldeko enpresen hornitzaileek bete beharreko oinarritzko printzipioak eta baldintzak ezartzen ditu, hala nola giza eskubideen errespetua, ingurumenaren babesa, enpresa etika eta ustelkeriaren prebentzioa. Era berean, erosketa baldintza orokorrek gardentasunean, etika profesionalean eta araudia betetzean oinarritutako merkataritza harremanak bermatzen dituzte.

Ingurumenarekiko konpromisoarekin eta ingurunearen garapen ekonomikoarekin lotuta, Danobatgroupek hurbileko erosketa ere bultzatzen du. Taldeko enpresak oso ingurune industrializatuan daude, makina-erremintaren sektorean espezializatutako hornitzaile sare zabal batekin. 2025ean, taldearen erosketa industrialaren bolumenaren % 60 baino gehiago hurbileko hornitzaileak izan ziren (Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa), eta bolumenaren % 80 baino gehiago Espainiako Estatukoa da.



**Erosketen Politika, erosketen baldintza orokorrak eta hornitzaileentzako jokabide kode berria.**



Atal honetako ekintzak Nazio  
Batuen Garapen Jasangarriko  
Helburuekin eta GRI  
estandarrekin lerrokatuta daude.



**GRI 2** — [2-10] [2-23] [2-29]

**GRI 3** — [3-3]

**GRI 204** — [204-1]

**GRI 205** — [205-1] [205-3]

**GRI 308** — [308-1]

**GRI 414** — [414-1]

**GRI 418** — [418-1]

# Sustainable growth

In advanced manufacturing

## Materialtasun <sup>07</sup> bikoitzaren azterketa

Enpresaren testuinguruaren analisia	83
Jasangarritasun kontuekin lotutako inpaktu, arrisku eta aukera errealak eta potentzialak identifikatzea	83
Interes taldeei kontsulta egitea	83
Inpaktuaren materialtasunaren ebaluazioa	84
Materialtasun finantzarioaren ebaluazioa	87
Emaitza gehitzea eta IAA materialak identifikatzea	89
Garrantzi estrategikoaren ebaluazioa	91
Azken emaitzak gehitzea: IAA materialak eta garrantzitsuak	92

## Eranskinak <sup>08</sup>

# Materialtasun bikoitzaren eta jasagarritasuneko gai garrantzitsuen analisia

Taldeko bi enpresa nagusiek, Danobatek eta Soralucek, materialtasun bikoitzaren eta garrantzi estrategikoaren azterketa egin dute, Danobatgroupekin koordinatuta, metodologia eta irizpide berak aplikatuz. Elkarrekin egindako lan horri esker, jasagarritasunean lehentasuna duten gaiak identifikatu dira, zeinak, duten inpaktu eta garrantziagatik, Danobatgroupen ere kontuan hartuko diren, enpresen eta taldearen estrategiarekin koherentzia izatea eta lerrokatuta egotea bermatzeko.

## Prozesuaren deskribapena

Inpaktu, arrisku eta aukerak identifikatzeko eta haien materialtasuna eta garrantzia ebaluatzeko, enpresek aplikatu beharreko araudiaren gomendioetan eta EFRAGEk argitaratutako erreferentziazko gidetan oinarritutako analisi prozesu bat garatu dute, honako fase nagusi hauen arabera:

1. Enpresaren testuinguruaren analisia.
2. Jasagarritasun kontuekin lotutako inpaktu, arrisku eta aukera errealak eta potentzialak identifikatzea.
3. Interes taldeei kontsulta egitea.
4. Inpaktuaren materialtasunaren ebaluazioa.
5. Materialtasun finantzarioaren ebaluazioa.
6. Emaidza gehitzea eta IAA materialak identifikatzea.
7. Garrantzi estrategikoaren ebaluazioa.
8. Azken emaitzak gehitzea: IAA materialak eta garrantzitsuak.

Ekitaldian zehar, enpresak bere balio kateko etapa guztietako eragile, inpaktu, arrisku eta aukera erreal eta potentzialak identifikatzen jardun du.

- Goranzko balio katea: enpresaren hornidura kate nagusien zuzeneko hornitzaileak (TIER 1).
- Enpresak garatutako eragiketa propioak, kontuan izanda talde bateratuko enpresa eta filial guztiak.
- Beheranzko balio katea: banaketatik bertatik bezeroarenganaino eta bere erabilera faseraino doazen etapak.



## 1. Testuinguruaren analisia

Gure jarduera eta harreman komertzialean ikuspegi orokorra lortzeko, eta horiek gauzatzen diren testuinguru eta alderdi interesdun nagusiak ulertzeko, enpresen testuinguruaren analisia egin da, abiapuntu gisa, honako alderdi hauek aintzat hartuta:

- Garatutako jarduerak, produktuak eta zerbitzuak, negozio ereduak, haien egoera finantzarioak, Kooperatibaren politikak eta estrategia.
- ASG alorrean kooperatibak bere eragiketa propioetarako eta bere balio kateko garatutako kudeaketa praktiken eta ekimenen analisia.
- Goi mailan aplikatu beharreko arau esparrua.
- Jarduera, produktu eta zerbitzuen goi mailako mapaketa eta jarduera eta harreman komertzialen eta ur gora zein ur beherako balio kate nagusien lokalizazio geografikoa.

Informazio horretan eta erreferentziazko iturri batzuen kontsultan (GRI, SASB, UNEP-FIko Impact Radar, Encore...) oinarrituta, datu sorta bat eta informazio garrantzitsua lortu da enpresetako inpaktu, arrisku eta aukera errealak eta portentzialak identifikatzeko.

Aurrekoaz gain, analisi ariketa honen esparruan, alderdi interesdunen mapaketa egin da balio katearen etapa guztietan zehar, definitutako analisiaren perimetroaren esparruan, eta horretako bakoitzarentzat hau identifikatu da:

- Enpresaren jarduerak eta/edo balio kateak eragindako alderdi interesduna den eta/edo jasagarritasun adierazpenaren alderdi erabiltzaile interesduna den.
- Balio katean duen posizioa.
- Bere lehentasun maila, eragiketa, harremana eta enpresarako garrantzia irizpideetan oinarrituta.
- Beharrak eta itxaropenak, enpresarekiko eta berarentzat interesgarriak izan daitezkeen jasagarritasuneko gaiekiko.
- Kontsultarako eta parte hartzeko garatutako kanalak eta mekanismoak harekiko.

## 2. IAAen identifikazioa

Jasagarritasunaren alderdiekin lotutako IAAk identifikatzeko, erakundeak testuinguruaren analisiaren emaitzetan oinarritu da. Identifikazio horren emaitza gisa, IAAen Zerranda Luzea konfiguratu da, non hurrengo informazioa jasotzen den, gai, azpigai edo azpi-azpigaietan egituratuta (kasu bakoitzaren beharrezkotzat jotzen den bereizketa mailaren arabera):

- Inpaktu, arrisku eta aukeraren deskribapena, irizpide batzuetan oinarrituta (tipologia, balio kateko posizioa, etab.)
- Materialtasun potentziala, horizonte potentziala, eta aurreikusten diren bereizketa irizpideak.
- Erakundeak gaur egun garatu eta IAA guztiei heltzen dieten ekimenak, kudeaketa jardunbideak, politikak, ekintzak eta jomugak.

## 3. Interes taldeei kontsulta egitea

Testuinguruaren analisian garatutako interes taldeen hasierako identifikaziotik hasita, interes taldeei kontsulta egiteko estrategia bat diseinatu da, helburu bikoitzarekin:

- IAAk lehenestea, stakeholderren ikuspegitik duten garrantzia eta inpaktuaren arabera, gure ahaleginak eragin ahalmen handieneko arlo kritikoenetara bideratzen laguntzeko.
- Garrantzia eta irismena baliozkotzea: jasotako feedbackaren bitartez, baieztatu dezakegu ea identifikatutako IAAk benetan garrantzitsuak diren eta ea haien irismena egokia den, beharrezkoa izanez gero egokitzapenak egiteko.

Garatutako analisiaren esparruan, inkesta sorta bat egin da interes taldeei zuzenduta, informazioa behar zela identifikatzen genituen arloetan haiek dituzten ikuspuntuen gaineko eta egiten dituzten ekarpenen gaineko informazioa indartzeko.

Kontsulta prozesuen emaitzak oso input garrantzitsua dira ondorengo ebaluazio ariketarako. Jasotako informazioa eta balorazioak modu esanguratsuan txertatzen dira, aztertutako gai guztien gaineko garrantzia zehazteko, kontuan izanda definitutako irizpideak eta atalaseak.

## 4. Inpaktuko materialtasunaren ebaluazioa

